

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-04-16
ASTELEHENA
361. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Domekan Elgetara joateko deia



Deitzaileak, pankartekin. | USOA AGIRRE

Frontea jausi zeneko 75 urteak gogoratzera dei egin dute Udalak eta Intxorta elkarteak | 4

Eguen eta egubakoitzean egingo dute Lanbide Heziketako azoka | 2



Zero zabor filosofiaz gehiago jakiteko astea, gaurtik | 5



Zaildu egin zaio MUri Lehen Nazional mailan jarraitzea | 20



Turismoa, ikusgarri

Aste Santuan ez ezik, Pazko asteko egunetan ere ibili dira bisitariak; Gatzagan, zapatuan, talde polita hartu zuten | 10

Aitziber Gorosabel (erdian), gatz museoko bisitariak azalpenak ematen.

JOSETXO ARANTZABAL

Eguraldi txarraren ondorioz, bi istripu eta bost zauritu izan ziren atzo

Euriteen eraginez, bi autok elkar jo zuten atzo Antzuolan, eta lau lagun zaurituta eroan zituzten ospitalera. Beste istripu bat Arrasaten izan zen, Zerrajera kaleko murraren zati bat behera etorri zenean, eta emakume bat zauritu egin zen. Domeka goizean bereziki zakartu zen eguraldia. | 4

UDAk irabazi eta, bide batez, Mondrari lagundu dio

Elgoibar 2-1 menderatu zuen atzo Ibarren | 18



Oxel Apritz, Aretxabaletaren bigarren gola ospatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Sarrera doan!



IZENADUBA BASOA Euskal Herriko parke mitologikoaren eskutik.

► Zoaz 17. orrialdera.

Lanbide Heziketari bultzada emango diote asteon Kulturaten

- ▶ 'Goiaz!' azoka egingo dute eguen eta egubakoitzean
- ▶ Ikastetxeek eta Mankomunitateak gertatu dute

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Ikasturtea amaitzean dago eta etorkizunean pentsatzen hasi beharra dago. Horretaz jabetuta, formazioak orokorrean eta, bereziki, Lanbide Heziketak eskaintzen dituen aukeren berri emateko azoka antolatu dute, laugarrenez, Debagoieneko Mankomunitateak eta bailarako ikastetxeek. Eskualdeko ikasleei, langabeei eta interesa duten guztiei zuzenduta dagoen *Goiaz!* azoka eguenean eta egubakoitzean izango da, Kulturaten (Arrasate), 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara.

Dena dela, biharko, martitzena, aurkezpena egiteko prentsaurrekoa dago deituta, 18:00etarako, Kulturateko Loramendi gelan; eta horren ondoren, profesionaltasun ziurtagirien eta enpresa eta formazioen gaineko berbaldiak izango dira; gaztelera izango dira bi horiek.

Arreta pertsonalizatua

Urtero legez, ikastetxeen informazio mahaiak jarriko dituzte azokan; hain justu, Lanbide Heziketako hamar zentzoren eskaintza zabala egongo da denon eskura. Bestelako formazio zentro, erakunde eta enplegu eta ekintzaileendako zerbitzuek ere jarriko dituzte postuak. Aurten, berrikuntza moduan, arreta pertsonalizatua eskainiko dute, aurrez ordua eskatuta. Zalantza profesionalak argitzeko edo zentro edo titulazio bat ezagutzeko arduradun baten eskutik informazioa jasotzeko aukera egongo da. Interesa dutenek 943 79 30 90 telefono zenbakira deitu edo debagoiena.goiaz@gmail.com helbidera mezua idatzi behar dute.

Eguenean, goi mailako ikasleak Horrekin batera, ekintza osagarriak gertatu dituzte. Eguena batxilergo eta goi mailako heziketa zikloko ikasleei dago bere-

PARTE HARTUKO DUTEN ERAKUNDEAK

LANBIDE HEZIKETAKO ZENTROAK

- ▶ Oñatiko Gestio Eskola-MU
- ▶ Zuazola-Larraña institutua
- ▶ Mariaren Lagundia ikastola
- ▶ Migel Altuna institutua
- ▶ Arizmendi ikastola
- ▶ Goi Eskola Politeknikoa
- ▶ Aretxabaleta Lanbide Eskola
- ▶ Nekazaritza eta Itsas-Arrantza Eskolak (Itsasmendikoi)
- ▶ Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentroa
- ▶ Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa

FORMAZIO ZENTROAK

- ▶ Bastida akademia
- ▶ Ikasi-Prestakuntza zentroa

BESTE HAINBAT ERAKUNDE

- ▶ Bizikasi
- ▶ Alecop-Prestakuntza alternantzia

ENPLEGU ZERBITZUAK

- ▶ Lanbide
- ▶ Kutxa Zeharo Enplegu Zerbitzua
- ▶ Eures

UDALETAKO SUSTAPEN ETA ENPLEGU ZERBITZUAK

- ▶ Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako udalak

EKINTZAILEENDAKO ZERBITZUAK

- ▶ Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomirako Agentzia
- ▶ Saiolan

ziki zuzenduta, eta, horren hari- ra, hiru hitzaldi daude aurreikusita. Lehenengoan, ekintzaile gazteen esperientziak gertutik ezagutzeko aukera izango dute horiek, Goiena Sport Kirol Zerbitzuen, Belun Argazkien eta Alet Taldeko ordezkari gazteen eskutik. Dagoeneko eskualdeko ikastetxeetako 150 ikasle inguruk eman dute izena.

Horren ondoren, atzerrira lanera joateko aukeren gainean jardungo dute. Beraldi horretan, Lanbideko Eures aholkulari Violeta Morcillok European lan egiteko informazioa eskainiko die Kulturateko areto nagusian batzen direnei eta Mondragon Taldeko Jokin Laspiurrek Txinan sei urtez bizi izandako esperientzia kontatuko die. Arratsaldean, ostera, Lanbide Heziketako esperientzien txanda izango da. Ikasle eta enpresetako giza-baliabideen arduradunek euren esperientzia kontatuko dute; Gureak taldekoak ere izango dira.

Gurasoei eta langabeei

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Agentziako Enplegu teknikari Amaia Irizarrek azaldu du bereziki gurasoei eta langabeei dagoela beraldi hori eskainita. Horren harira, honakoa esan du: "Ikusten dugu askotan gurasoek gura izaten dutela euren seme-alabek unibertsitatean ikas dezatela, eta Lanbide Heziketa bigarren aukera moduan ikusten dute. Enpresetan profil horretako jendea behar dela helarazten saiatuko gara".

Egubakoitza tailerrekin hasiko da; Garaionek DBHko ikasleei bideratutako tailerrekin. Askotariko dinamikak erabilita lau saio egingo dituzte; dinamika horietan, kanporatutako ideiekin erlauntz erraldoia egiteko asmoa dute aurten. Bost zentrotako 250 ikasle inguruk parte hartuko dute goiz



Aurten ere azokan izango dira Bergarako Migel Altuna institutukoak. | LEIRE KORTABARRIA

DATUA

600

IKASLE

Debagoien osoko 600 ikasle inguru espero dituzte eguenean eta egubakoitzean Arrasateko Kulturaten.

EKINTZA OSAGARRIAK

HILAK 19, EGUENA

09:30 Hitzaldia: *Ekintzaile gazteen esperientziak.*

11:00 Hitzaldia: *Atzerrira lanera joateko aukerak.*

18:00 Hitzaldia: *Lanbide Heziketako esperientziak Debagoienean. Gaztelera.*

HILAK 20, EGUBAKOITZA

08:45-13:30 Ekintzailetasun tailerrak Garaionen eskutik.

10:00 Hitzaldia: *Profesionaltasun ziurtagiriak.*

11:00 Hitzaldia: *Enpresa eta formazioa.*

12:00 Hitzaldia: *Lan-Elkarrizketa nola prestatu. Gaztelera.*

osoan egingo diren tailer horietan. Bitartean, martitzeneko prentsaurrekoaren osteko hitzaldiak eskainiko dituzte ostera ere, euskaraz. Lehenengoan, profesionaltasun ziurtagirien gainean egingo du berba Enplegurako Lanbide Heziketaren Azpisisistema Integrazteko teknikari Gloria Gonzalezek. Hain justu ere, esperientziadun baina titulazio bako jendeak ziurtagiri ofizialak lortzeko dituen aukerez jardungo du. Horiek nola lortu eta noiz eta nola eskatu azalduko du.


Horretaz gainera, enpresa eta formazioa izango dute hizpide. Enpresetan formazioa egiteko eta langileen kualifikazioa hobetzeko dauden egungo aukerak azalduko dira: eskaintza irekia, lan esperientziaren bidez Lanbide Gaitasuna Egiaztatze egitura eta Gizarte Segurantzaren eta Prestakuntza Hobariaren Sistema. Enpresen formazio beharren diagnostikoez ere hitz egingo dute Aretxabaleta Lanbide Eskolak eta Bergarako Migel Altuna institutukoak.

Bada, enpleguarekin lotutako berbaldia ere antolatu dute egubakoitzerako. Hain zuzen, lan-elkarrizketei buruzko gomendioak eskainiko dituzte Arrasateko Lanbide bulegoko orientatzaileek egubakoitz eguerdian. Langabeei zuzendutako berbaldia da, eta, hortaz, zabalik dago izen-ematea debagoiena.goiaz@gmail.com helbidean. Ideiak argitu gura dituztenek bi egun horietan Kulturatera joan beharko dute.



Ikasleen proiektuak ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte

Joan den urtean jarri zituzten, lehen aldiz, ikasturtean zehar landutako hainbat proiektu klaustroko erdigunean; besteak beste, Zuazola-Larrañako ikasleek sortutako energia fotovoltaiko muntaia, Aretxabaletako Lanbide Eskolakoek prestatutako lau aldiko automobil-motorra eta MUko Goi Eskola Politeknikokoek egindako elektrizitate estatikoa sortzeko gailuak egon ziren ikusgai; erakusketak izandako harrera ikusita, aurten proiektuak gertutik ezagutzeko aukera eskainiko dute, bisita gidatuen bidez. Ordu laurdenen lauzpabost "esperimenturen" gaineko azalpenak jasoko dituzte bisitariek.



Proiektuak azalduko dituzte azokan. | LEIRE KORTABARRIA

AMAIA IRIZAR | DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEKO GARAPEN AGENTZIako ENPLEGU TEKNIKARIA

"Langabeendako eta langileendako ere interesgarria da azoka"

Bailarako ikastetxeekin batera *Goiaz!* azokaren antolakuntzan buru-belarri dabil sartuta Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Agentziako Enplegu teknikari Amaia Irizar.

Zein da azoka horren helburua?

Lanbide Heziketari bultzada emateko asmoz sortu genuen orain dela lau urte; lehenengo proba moduan egin genuen, eta, harrera ikusita, horrekin jarraitzea erabaki genuen. Formazioa, arlo zabalenean, eskaintzea da helburua. Urtetik urtera harrera hobea duen ekimena dela igarri dugu. Hobetzen goaz, bai eskaintza aldetik eta baita programazio aldetik ere. Joan den urtean, esaterako, Kulturategi klaustro erdian, azokan parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleek ikasturtean egindako hainbat proiektu jarri genituen erakusgai. Praktikotasun hori ikuste aldera jarri genuen



MIRIAN BITERI

martxan erakusketa hori. Ikusmina sortu zuen. Ez da informazio mahaia bakarrik; beste askoren artean, auto baten motorra, soldatze piezak eta mendiko bizikletarekin egiteko ibilbideen maketak ere ikus ditzakete bisitariek.

Zenbat jende espero duzue bi egun horietan?

Ikasleei dagokienez, denak batuta, 600 inguruk parte hartzea espero dugu egunean eta egubakoitzean. Horietako askok dagoeneko eman dute izena antolatu diren hitzaldi eta tailerretan. Horretaz gainera, kanpo-

tik etorriko direnak daude. Edozeinek du azoka bisitatzeko aukera. Horren harira, azpimarratu nahi dugu ez dela bakarrik ikasleei zuzendutako azoka; langabeendako eta lanean daudenendako ere interesgarria izan daiteke, eta haiei zuzendutako ekintzak antolatu ditugu.

Horrenbeste kilometro egin ondoren, zure Volkswagenak hobereana merezi du. Eta zuk, preziorik onenak.



Volkswagen Service.
Volkswagenen moduan inon ez.

Das Auto.

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Pintura zerbitzu azkarra

70 €¹ tik aurrera

Ingurunearen korrosiotik babesten dugu zure ibilgailua eta hasierako balioa ematen diogu.



Haizetako-garbigailuen paketea

44 €⁴ tik aurrera

Aurreko haizetako-garbigailuen aldaketa. Eta, gainera, atzekoa eta guztien muntaia opari.



Segurtasun azterketa

45 €²

Diagnostiko elektronikoa, hozgarria maila egokian jartzea eta haizetako-garbigailuak, sabaiko giden lubrikazioa eta bisagren koipeztatzea egingo da.



Klimatizazio instalazioen azterketa

55 €³

auto-barneko iragazkiaren aldaketa barne

Volkswagenen Zerbitzu Ofizialetan bakarrik kontrola dezakegu zure ibilgailuaren klimatizazioa egokia dela. Egiten dituzun ibilbide guztietan airerik onena arnas dezazun.



Bateriaren azterketa eta aldaketa

125 €⁵ tik aurrera

Guk bakarrik egin dezakegu zure bateriaren azterketa onena, lehenengo eguneko energia berarekin mugitu zaitzen.



Freno-pastillen aldaketa

115 €⁶ tik aurrera

Zerbitzu hau maiztasunez egitea gomendatzen dizugu, zure Volkswagenak zehaztasun osoz erantzun dezan.

Prezio guztiak BEZa barne. Eskaintza baliagarria 12/05/31 arte. 1. atzerako ispluaren karkasa margotzearen prezioa. Polo, Golf, Passat eta Touran guztientzat baliagarria. 2. Volkswagen Turismo modelo guztietarako baliagarria. 3. Polo 95-12, Golf/Variant 04-12, Golf Plus 05-12, Passat/Variant 01-12, Passat CC 09-12 eta Touran 03-12 modeloentzat baliagarria. Iragazkia ez da ikatz aktiboz egindakoa. 4. Polo 95-12 modeloentzat baliagarria. Beste modeloetarako, tarifak kontsultatu. * Atzeko eskuila berez dakarten autoen kasuan oparitutako da bakarrik. 5. Polo 05-12, Golf/Variant 04-12, Golf Plus 05-12, Passat/Variant 09-12 eta Touran 06-12 modeloen bateriaren azterketa eta aldaketa "Bateria Original Volkswagen 44AH 220" ren barruan. Start-stop funtzioa duten modeloentzat ez da baliagarria. Gainontzeko tarifak kontsultatu. 6. Polo 05-12-ren aurreko freno-pastillen aldaketa. Beste modelo batzuentzat, tarifak kontsultatu. Udaberriko eskaintza bereziak www.volkswagen.es orrialdean begiratu.

Komentuak ixtea izango da frantziskotarren lan ildoetako bat

- Datozen hiru urteetako programa egin dute Pazko astean Arantzazun
- Joxe Mari Arregi oñatiarra aukeratu dute probintzialaren ordezkoko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Juan Mari Martínez de Illarduia aguraindarrak izango da Arantzazuko frantziskotarren probintzial berria datozen hiru urteetan. Eta bere laguntzailea, ordezkoa, izango da Joxe Mari Arregi oñatiarra. Arregik azken hiru urteetan izan duen kargua izango du beste hiru urtez, eta Illarduia, berriz, Telesforo Zuriarrainen lekua hartuko du. Oñatiarrak, aguraindarrak eta beste bost frantziskotarrek osatuko dute gidaritza taldea. Talde hori bi hilabeteetan behin elkartzeko da joan den astean Arantzazun egindako kapituluetan adostu zuten programa aurrera ateratzeko.

Komentuen itxiera

Datozen hiru urteetako lan ildo nagusiak bi izango direla aurreratu zuen eguenean Joxe Mari Arregi oñatiarrak Arantzazun: "Egiten dugun lana kalitatezko



Joxe Mari Arregi eta Juan Mari Martínez de Illarduia, Arantzazun. | O.E.

lana izatea eta komentuen itxiera. Gero eta gutxiago gara gelditzen garenak, gero eta zaharra goak, eta aurreikusten dugu urtean komentu bat itxi beharko dugula. Aztertu behar dena da nongoa, hemen ez ezik, Gaztelan edo Kan-

tabrian ere baditugulako etxeak. Aukeraketa horren zergatiak, arrazoiak, eta han dauden egoitza berria ere aztertu behar da. Prozesu luzea izango da, gogorra, burokraziatik eta sentimenduengandik".

242 frantziskotar

Azken hiru urteko balorazioa, hurrengo hiru urteetako programa eta kargu berriak izendatzeko kapituluak egiten pasa dute Pazko astea 41 frantziskotarrek Arantzazuko komentuan.

Kapitulu horiek egin aurretik, Erromatik bidalitako bisitatzailerak, Valentziako Angel Talens kasu honetan, Arantzazuko frantziskotarrak sartzen diren probintzia berean dauden beste komentuetan egon zen: Gipuzkoan zazpi komentu, Bizkaian lau, Kantabrian, Nafarroan eta Valladoliden bina eta Burgosen, Sorian eta Madril beste bana. 20 komentu horien egoera aztertu zuen bisitatzailerak eta hango frantziskotarren kezka, iritziak eta aurrera begira dituzten aukerak entzun zituen. Komentuetan jasotako informazioarekin txostena egingo du Erromara bidaltzeko. Eta berdin egingo du Probintzial berriak ere. Arantzazuko kapituluetan hartutako erabaki eta iritzi guztiak helduko dira modu horretan Erromara.

Momentu honetan 242 frantziskotar daude Arantzazuko probintzial beraren babesean: horietatik 174 penintsulan daude eta 47 Paraguayan, Bolivian, Korean, Kuban eta Dominikar Errepublikan dituzten misioetan.

Nafarroaren konkistaz bi ekintza Arrasaten eta Aretxabaletan, etzi

Zuztarrak Errotuz taldeak, Nabarralde eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin, Nafarroaren konkistaren gaineko hitzaldi zikloa antolatu dute. Lehenengoa etzi, eguaztena, izango da, 19:00etan, Kulturaten. Egun berean, Aretxabaletan, Durana kalean, informazio eta material salmenta postua ipiniko du herriko Nafarroa Bizirik taldeak, 18:30ean.

Menopausiaz hitz egingo dute bi adituk bihar Kulturaten

Menopausia da Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak bere Osasun Ikasgelarako aukeratu duen hurrengo gaia, eta bi saio antolatu ditu. Bihar, martitzena, hilak 17, izango da lehenengoa, Arrasaten, Kulturaten, 19:00etan, eta hilaren 24an, Bergaran, bigarrena. Rebeca Garcia erizain eta emaginak eta Jose Ramon Serrano ginekologoak egingo dute berba.



Elgetako udal ordezkariak eta Intxorta 1937 kultur elkarteko kideak, domekako ekitaldia aurkezten. | USOA AGIRRE

Frontearen omenezko ekitaldira joatera deitu dute

Elgeta Francoren pean jausi zeneko 75 urteak gogoratuko dituzte domekan, apirilak 22

O.E./U.A. | ELGETA

Domekan, Elgetako frontea jausi izanaren 75. urteurrena gogoratzeko ekitaldi nagusia egingo dute, eta horra joateko dei egin zuten eguenean Oxel Erostarbe alkateak eta Juan Ramon Garai Intxorta 1937 elkarteko kideak.

Horrez gain, datorren eguenean Pablo Beldarrain Olalde, Martiartuko komandanteak, bere garaian idatzitako *Historia criti-*

ca de la guerra de Euskadi (1936-1937) liburua aurkeztuko dute, eta horretara ere gonbidatu dute. Pablo Beldarrain Olalde idatzitako liburua da eta euskal bataioiak borroka egiteko zituen baliabideak eta indarrak jasotzen ditu lehen eskutik, besteak beste. Ekitaldi berean, Pako Etxeberriak, Aranzadi Zientzia Elkarteko presidentek, gudarien petrinetan aurkitutako gerriko-belarriei buruz berba egingo du.

"Badabilta konfirmatzen"

Apirilaren 24an beteko dira 75 urte faxistek Elgeta hartu zutela. 1936ko irailean Bergara hartu ostean, Elgetan ezarri zuten frontea milaka miliziano eta gudarik. Zazpi hilabete iraun zuen borrokaren ostean, 1937ko apirilaren 24an hartu zuten Elgeta Francoren tropek eta Alemania eta Italiatik etorritako militarrek.

Oxel Erostarbek esan zuenez, Intxortan borrokatu zuten gudarriak, "bizi direnak eta hil direnen familiak" gonbidatu dituzte domekarako. "Badabilta batzuk konfirmatzen etorriko direla", esan zuen eguenean. Bestalde, "elgetarrak eta debagoiendarrak" ere gonbidatu zituen hilaren 22an urteurrena eurekin "batera ospatzera".

Urteurreneko eskultura aukeratu eta erakusketa zabaldu du Soraluze kooperatibak

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Osintxuko Soraluze kooperatibaren 50. urteurren ekitaldietako bat egubakoitzean egin zuten: urteurreneko eskultura aukeratzeko lehiaketaren irabazlea aurkeztu zuten, eta jasotako lan guztien erakusketa inauguratu zuten, Soraluze.

Zazpi lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta Javier Muro eskultore nafarraren *Reto al Futuro* izenekoa aukeratu zuten kooperatibako bazkideek, bozketan bidez. "Espiritu kooperatibista adierazten du: batasuna, kanpora zabalik egotea, mugimendua eta, batez ere, etorkizunera begirada baikorra": hori esan zuten antolatzaileek lanaren inguruan. Apirilaren 27an,

Osintxuko instalazioetan ipiniko dute eskultura, eta han ikusgai izango da.

Erakusketa Soraluze

Honako egileak ere aurkeztu dira, obra hauekin: Aitor Ruiz de Egin, *GU*; Arturo Andrade, *Los cooperativistas*; Willy Latsurregi, *Zeruhertzaren muga*; Alberto Ramirez, *Sustraitze*; Iñigo Arregi, *Barruan*; eta Muniategiandikoetxea, *Bat izanik*. Antolatzaileek "maila handia" nabarmendu dute. Lan guztiak, eskalan egindako erreprikekin eta azalpenarekin, Soraluze kiroldegian daude ikusgai, eta enpresaren historiaren gaineko argazki batzuk ere bai, 19:00etatik 20:00etara arteko bisita ordutegian.



Javier Muro (eskuman), Soraluze kooperatibako Txus Alzagarekin. | ALFIL

Bi istripu eta elur txikia utzi zituen asteburuko eguraldi txarrak

- Bi autok elkar jo zuten Antzuola eta Bergara arteko errepidean
- Elurra egin zuen 700 metrotik gora; gaur, kota igo egingo da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoieneko apiril baterako aparteko txarra izan ez zen arren, atzoko eguraldi ak bi istripu eta zenbait gorabehera ekarri zituen. Istripu biak eguerdi aldera gertatu ziren: batetik, Antzuolatik Bergararako errepidean bi autok elkar jo zuten, eta bat malkarreen behera jausi zen. Auto bakoitzean bi lagun zihoazen, eta laurak eraman zituzten ospitalera. Errail bat itxi egin behar izan zuten arratsaldeko lehen ordura arte. Bestetik, Arrasateko Zerrajera kaleko murraren zati bat jausi egin zen, eta emakume batek min hartu zuen. Suhiltzaileek murruso botatu zuten, zati gehiago jausteko arriskua zegoelako.

Argi barik

Bergaran, elektraindar poste baten gainera jausi zen zuhaitz bat, eta Bergarako auzo batzuk eta Antzuola argi barik geratu ziren goiz partean. Bestalde, telebista kate batzuk ezin ikusi geratu ziren hainbat herriko auzo batzuetan.

Horrez gain, goizean, bailarako leku altuenetan elurra egin zuen. Bihar egingo du hobera, Euskalmet-ek iragarri duenez.



Antzuolatik Bergararako bidean ertzainak eta suhiltzaileak. | JOSETXO ARANTZABAL



Suhiltzaileak, Arrasaten jausitako murraren aurrean. | MIREN ARREGI



Elurra Dorletako inguruan, atzo goizean. | JOSETXO ARANTZABAL



Arlabango gainean ere elurra ziharduen. | JOSETXO ARANTZABAL



Elgetako udal ordezkariak eta Intxorta 1937 kultur elkarteko kideak, domekako ekitaldia aurkezten. | USOA AGIRRE

Frontearen omenezko ekitaldira joatera deitu dute

Elgeta Francoren pean jausi zeneko 75 urteak gogoratuko dituzte domekan, apirilak 22

O.E./U.A. | ELGETA

Domekan, Elgetako frontea jausi izanaren 75. urteurrena gogoratze ekitaldi nagusia egingo dute, eta horra joateko dei egin zuten egunean Oxel Erostarbe alkateak eta Juan Ramon Garai Intxorta 1937 elkarteko kideak.

Horrez gain, datorren egunean Pablo Beldarrain Olalde, Martiartuko komandanteak, bere garaian idatzitako *Historia criti-*

ca de la guerra de Euskadi (1936-1937) liburua aurkeztuko dute, eta horretara ere gonbidatu dute. Pablo Beldarrain Olalde idatzitako liburua da eta euskal bataioiak borroka egiteko zituen baliabideak eta indarrak jasotzen ditu lehen eskutik, besteak beste. Ekitaldi berean, Pako Etxeberriak, Aranzadi Zientzia Elkarteko presidentek, gudarien petrinetan aurkitutako gerriko-belarriei buruz berba egingo du.

"Badabiltza konfirmatzen"

Apirilaren 24an beteko dira 75 urte faxistek Elgeta hartu zutela. 1936ko irailean Bergara hartu ostean, Elgetan ezarri zuten frontea milaka miliziano eta gudarik. Zazpi hilabete iraun zuen borrokaren ostean, 1937ko apirilaren 24an hartu zuten Elgeta Francoren tropek eta Alemania eta Italiatik etorritako militarrek.

Oxel Erostarbek esan zuenez, Intxortan borrokatu zuten gudarriak, "bizi direnak eta hil direnen familiak" gonbidatu dituzte domekarako. "Badabiltza batzuk konfirmatzen etorriko direla", esan zuen egunean. Bestalde, "elgetarrak eta debagoiendarrak" ere gonbidatu zituen hilaren 22an urteurrena eurekin "batera ospatzera".

Urteurreneko eskultura aukeratu eta erakusketa zabandu du Soraluze kooperatibak

L.K. | BERGARA

Osintxuko Soraluze kooperatibaren 50. urteurren ekitaldien barruan, urteurreneko eskultura aukeratzeko lehiaketaren irabazlea aurkeztu zuten, egubakoitzean, Soraluzen.

Zazpi lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta Javier Muro nafarraren *Reto al Futuro* izeneko aukeratu zuten kooperatibako bazkideek, bozketa bidez. Apirilaren 27an, Osintxuko instalazioetan ipiniko dute eskultura.

Erakusketa Soraluzen

Honako egileak ere aurkeztu dira, obra hauekin: Aitor Ruiz de Egiño, *GU*; Arturo Andrade, *Los cooperativistas*; Willy Latsurregi, *Zeruhertzaren muga*; Alberto Ramirez, *Sustraitze*; Iñigo Arregi, *Barruan*; eta Muniategiandikoetxea, *Bat izanik*. Lan guztiak, eskalan egindako erreplikekin eta azalpenarekin, Soraluzeko kiroldegian daude ikusgai, eta enpresaren historiaren gaineko argazki batzuk ere bai.



Javier Muro (eskuman), Soraluze kooperatibako Txus Alzagarekin. | ALFIL



Debagoieneko Zero Zabor taldeko kide batzuk, egitarauarekin. | JOSETXO ARANTZABAL

Zero zabor filosofia ezagutzeko astea gaurtik, Debagoieneko herrietan

Hitzaldiak, dokumentalak, irteerak eta festa eguna, besteak beste, apirilaren 16tik 22ra bitartean

USOA AGIRRE | ARRASATE

Zero Zabor filosofia Debagoieneko herrietan gehiago ezagutzeko asmoz antolatu ditu ekitaldiak Debagoieneko Zero Zabor taldeak.

Apirilaren 16tik 20ra bitartean, hitzaldi eta dokumental emanaldiak antolatu dituzte. Tartean, Debagoieneko Zero Zabor taldeak egin duen *Erraustegiari atek ixten* izeneko dokumentala aurkeztuko dute apirilaren 18an Oñatiko kultura etxean.

Festa eguna eta irteera

Zapaturako, berriz, festa giroko eguna antolatu dute egun osoko egitarauarekin. Goizean Antzuolara egingo dute irteera atez ate-

ko sistema bertatik bertara ikusteko. Gero bazkari herrikoia izango dute Bergaran eta, arratsaldean, aldarrikapen kalejira egingo dute. Gauean kontzertuak izango dira Bergarako gaztetxean. Bazkarirako txartelak salgai daude Oñatiko Oñati tabernan; Aretxabaletako Arlutzen; Bergarako Arrano, Kortazar eta Bulen; eta Arrasateko Iratin.

Domekarako irteera bat antolatu dute Gipuzkoako zenbait herritarra: Villabonan, Usurbilen eta Hernanin izango dira. Zero zabor filosofia atez atekoa baino gehiago dela azaldu nahi dute herri horietako eredu praktikoak erakutsiz: ontziratu gabeko produktuak saltzen dituzten dendak;

esne makinak; pixoihal berrera-bilgarriak erabiltzeko kanpaina; harategi eta arrandegietan tupperrak erabiltzea; eta ogitar-tekoak batzeko zorro berrerabilgarriak erabiltzen dituzte.

Informazio kanpaina

Bestalde, Arrasateko Udalak idatzi bat kaleratu du hiri hondakinen gaiak "jasan duen garapena" dela-eta. Azalpenak ematea du helburu dokumentuak, "urduri edota arduratuta" sentitu diren arrasatearrei zuzenduta. Gainera, Debagoiena osoan hondakinen kudeaketaren gaineko informazio kanpaina bat abian jarriko dute- la iragarri dute; orduan jakingo dira zehaztasunez Udalak abia-

razi gura dituen ekimen guztien datak, lekuak eta moduak. Maiztean hasiko da Debagoiena osoan hondakinen kudeaketaren inguruko informazio kanpaina eta orduan kaleratuko dira orain arte irten ez diren gaiak: zenbat hondakin sortzen den, zenbat birziklatzen den, zenbat bideratzen den erauskailura, zer koste duen oraingo sistemak...

Aldi berean, herriko eragileekin kontseilu bat eratuko du Arrasateko Udalak. Kontseilu horretan hondakinen kudeaketarako dauden sistema desberdinen arteko konparaketak egingo dituzte. Ekainean erabakiko du Arrasateko Udalak hondakinak biltzeko zein sistema jarri.

PSE-EEren hitzaldia, bihar

Debagoieneko Ezker Anitza-IUK atez ateko bilketaren alde dagoe-la berretsi du prentsa ohar baten, baina, bere iritzi, "herritarrekin batera hartu beharreko erabakia" da, "galdeketen bidez".

PSE-EEK, bere aldetik, Arrasateko Udalaren kanpaina "informazio-itxurakeria" dela esan du. Horrez gain, Debagoien osorako hitzaldia antolatu du, hondakinen kudeaketaren ingurukoa. Susana Corcuera, PSE-EEren Gipuzkoako Udal Politika arduraduna, eta Manuel Blazquez ingurumen teknikaria izango dira hizlariak. Bihar, martitzena, izango da, Arrasateko Etxaluze erretiratuen egoitzan, 19:00etan.

ZERO ZABOR ASTEAREN EGITARUA

APIRILAK 16, ASTELEHENA

19:00 Hitzaldia Eskoriatzako Huhezín, Oñatiko Zero Zaborren eskutik: *Atez atekoaren aurrean komunikabideek izan duten jokaeraren azterketa.*

19:00 Dokumentala Arrasateko Kulturaten: *Etorkizuna erraustuz. El sucio negocio de la incineración en Sakana.* Ondoren, egileekin solasaldia

APIRILAK 17, MARTITZENA

19:00 Peio Lozano EHUko irakaslearen hitzaldia, Bergarako Irizar jauregian: *Las ventajas del puerta a puerta ante las desventajas de la incineradora.*

APIRILAK 18, EGUAZTENA

19:30 *Erraustegiari atek ixten* izeneko dokumentalaren aurkezpen publikoa Oñatiko kultura etxean.

20:00 Dokumentala Oñatiko kultura etxean: *Erraustegiari atek ixten.*

19:00 Gorka Bueno EHUko irakaslearen hitzaldia, Arrasateko Kulturaten: *Valorando la valorización energética.*

APIRILAK 19, EGUENA

19:00 Hitzaldia Aretxabaletako Arkupe kultura etxean, Oñatiko Zero Zaborren eskutik: *Zaborra, guk sortu, guk kudeatu.*

19:00 Dokumentalaren aurkezpena eta emanaldia Elgetako kultura etxean: *Erraustegiari atek ixten.*

APIRILAK 20, BARIKUA

18:00 Dokumentala Aretxabaletako Arkupe kultura etxean: *Etorkizuna erraustuz. El sucio negocio de la incineración en Sakana.*

18:30 Pello Zubiriaren hitzaldia, Oñatiko kultura etxean: *Atez atekoa, 5. edukiontzia... Norena da birziklatzeko ardura?*

APIRILAK 21, ZAPATUA

09:00 Irteera Bergaratik oinez Antzuolara atez ateko sistema ikustera.

13:00 Trikipoteoa, Bergarako plazatik abiatuta.

14:30 Bazkari herrikoia Bergarako karpa gunean (8 euro). Bazkalostean, Josu Zubia eta Ubera bakarlariren kantaldia.

18:00 Zero zabor filosofiaren aldeko kalejira, Bergarako plazatik abiatuta.

22:00 Kontzertua Bergarako gaztetxean: Krisis, KKK, Su-etena eta Kalamidaz. Sarrera, 3 euro.

APIRILAK 22, DOMEKA

16:00 Villabona, Usurbil eta Hernanira irteera Zero Zabor politikak ikustera.



AIERDI S.A.
Aholkulariak

2011ko ERRENTA AITORPEN KANPAINA

AHOLKULARITZA FISKALA, LAN AHOLKULARITZA ETA KONTABILITATEA ETA ASEGURU OROKORRAK

Artekale 1 behea - Tel.: 943 76 03 50 - Faxe.: 943 76 03 95 - BERGARA • Atzeko kalea 1 - Tel.: 943 71 60 96 - Faxe.: 943 71 61 13 - OÑATI

ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA
http://goiena.net/iritzia/



Hitza jolas

Erramu Zapatu bezperan bertsotan izan naiz frontoian. Mikrofono aurrean hiru emakume eta bi gizonezko. Orain dela urte askotako jendetzarik ez, baina sarrera polita: frontoiaren beheko harmailak itxuratuta.

Detalle batek sortu dit harridura eta poza: zenbat emakumezko eta, batez ere, zenbat neska gazte dagoen. Urteetan ohituta egon gara beste era bateko panorama ikustera: bertso txapelketetan gazteak pankarta eta guzti eta urtean zeharreko jaialdietan edadeko kaskazuriak nagusi.

Berrogei urte izango dira laster Almenen lehenengo bertso eskola sortu zela. Ehun eta hogeietatik gora izan ziren eskola hartan. Bertatik sortu zen lehenengo emakume bertsolari txapelketa ere. Hala da, bai. Arantzazu Loidi izan zen 1985ean Euskal Herriko Eskola arteko Bertsolari Txapelketako irabazlea.

Gaur egun ehundik gora herritan daude bertso-eskolak eta 1.600 inguru gazte eta heldu dabilta eskolotan. Gure bailaran, aldiz, hasierako bizi-indarra apalduta egon dira urteetan bertso eskolak. Baina uste dut egon gaitezkeela bertsoaren loraldi berri baten atarian: aramaiarrak indartsu dabilta Arabako txapelketetan, bai umeetan eta baita nagusietan ere; beste herri batzuetan gaztetxeen inguruan sortu dira bertso-eskola berriak...

Bertsolaritza lehiaketa-molde herrikoia goak planteatzen ari da azkenaldian. Araban, adibidez, bukatu berri da orain arte inoiz egin den koadrila arteko txapelketa parte-hartzaileena: bakarka izan ordez lagun artean, txapelketa nagusietan parte hartzen duten bertsolariak bat-batean egitera ausartzen ez, baina bertso jarriak dotore moldatzen dituztenekin batera...

Zergatik ez Debarroan bertan halako zerbait? Debarroa eta Araba antzekoak izango dira biztanlez, biztanle euskaldunez... Zuk ere parte hartuko zenukeela? Hasi entrenatzen. Gaur egun badira bertso-eskola digitalak ere.

USTEAK USTE

MAIDER ARREGI | marregi@goiena.com

Heroina eta heroiak

Mexikoko Gobernuak heroinari aurre egiteko txertoa patentatu berri duela irakurri dut prentsan. Helburua gaixoak errehabilitatzea da; heroinak sortzen dien plazera ezabatzea. Metadona askoren kasuan ez dela eraginkorra argi geratu da. Ez dakigu etorkizuneko txerto hau zerez egingo dagoen, baina oso garestia dela aurreratu dute. Denborak esango du farmazien merkatuak dirua egiteko tranpa bat den edo gaixo hauei eta senitartekoei laguntzeko urratsa den.

Eta bien bitartean, gure herrialde aurreratuetan heroina kontsumoak goraka egin duela diote estatistikek. Oraingoan ere krisiari egotziko diote horren errua?

"Uste dut egon gaitezkeela bertsoaren loraldi berri baten atarian"

KALE INKESTA

Zure inguruko umeak bataiatuta daude?



MILA AGIRRE
ARRASATE

"Kalean ikusten dudanez, erdiak bai eta erdiak ez. Lehen denok bataiatzen gintuzten baina orain erabaki ahal da".



KONTXI MALET
ARRASATE

"Erdiak baino gehiago bataiatu gabe daudela esango nuke. Handitzen direnean eurek erabakiko dute zer egin".



ROSA BAENA
ARRASATE

"Inguruko umeen erdiak baino gehiago bataiatu gabe daude eta logikoa da, elizetan ez delako jende gazterik ikusten".



JUAN RAMON ARRIOLABENGOA
ARRASATE

"Batzuk bai eta beste batzuk ez. Gurasoak gero eta gutxiago joaten dira elizara, eta horregatik izango dela uste dut".

HANDIK ETA HEMENDIK

Don Vito eta akolitoak

Mikel Garcia
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Martxoaren 15ean 40 urte egin zituen Francis Ford Coppolaren *The Godfather* apartak, aitzakia ezin hobea mafia italoamerikarra -botere borroka, ustelkeria, familia, mendekua, negozioa- gai duen filma berrikusteko.

Azken finean, ezaguna zaigu istorioa: pelikula irekitzen duen ezkontzaren eszena luze eta gogoangarrian nola, ospakizun alaian eman ditugu egunak, eta alboko gela ilunean, don Vito eta akolitoak aritu dira azpijokoan, lokatzen eroso.

Sotilagoak dira egungoak, ez dituzte zaldi buruak uzten ohean, ez dute etsaia sokaz itotzen; nahiago dituzte neurri sortutako legeak, mehatxuak eta txeke zuriak.

Garaiotako Corleonek ez du Marlon Brandoren ahots urratuarekin hitz egiten, ahapeka adosten ditu eskupekoak, eta jokoak baino, adreilua, errauste plantak, hirigintza, espekulazioa ditu negozio-iturri. Haatik, familia zutabe garrantzitsua da

oraindik, esleipenak eta goi-karguak banatzeko garaian.

Ikusi ditugu gurean funts-desbideratzeak -lapurretak, hizkera jatorrean-, irregulartasunak museo eta erakunde publikoetan, golf zelai eta lursailen salerosketa zalantzarriak, epaile eta agintarien prebarikazioak, opari festak.

Baina *The Godfather*-ko mafiosoen dotorezia eta estiloa falta zaie, gaurkoek trakets jokatzeko dute, egun argiz eta lotsagabe.

Fikziozko mafiak bere alde du klasiko bihurtu den Nino Rotaren musika-banda zirraragarria, ikuslea harrapatzeko gai den tentsio dramatikoa, Coppolak erabilitako plano berritzaileak, pelikula guztia ziprizzintzen duen giro beltza, Marlon Brando eta Al Pacinoren interpretazio bikainak, buruan iltzatuta geratzen diren esaldiz osatutako gidoia... "Aitak edozein gizon boteretsuren antzera jokatzeko du, senatari edo presidente baten antzera". "Ez izan inozoa, Michael, senatariak eta presidentek ez dute jendea hiltzen". Isilunea. "Zein da hemen inozoa?". Inozoenak gu, ospakizun alaiak betiko izango zela sinesteagatik.

Mekanismoa

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Fortunak gure atean noiz joko bizi gara. Zain. Baina, aldi berean, baita kezka ere, fortunak ez duelako sekula gure atean kax-kax jotzen, beti besteren batenean baizik. Putakeria horri beste putakeria bat ere erantsi behar zaio: fortunak bisitatu duen horrek nik baino meritu gutxiago zuen oraingoan ere; baina, beti bezala, niri ukatu zaidana jaso du. Frustrazioa erdi gaintitu, eta egokiera berri baten zain gelditzen gara. Baina hurrengoan ere gauza bera gertatuko da: guk baino meritu gutxiago duen baten etxea bisitatuko duela fortunak. Eta erretxin hasiko gara berriro.

Badago gure baitan mekanismo bihurritan bat bizitzak zerbait zor digula sinestarazten diguna. Gaiztoa da mekanismoa, zekena oso. Eta gu, seko inozoak: fortunaren zain pasatzen dugu bizitzaren erdia; fortuna madarikatzen beste erdia.

Zer axola ote dio fortunak gure atean jo eta gu kalean goxo egoteak? Izorra dadila, ze letxe beltz gero!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Asteburuko edizio arduraduna
Leire Kortabarria
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetzea eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetzea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetzea@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



INTXORTA 75 URTE

1937ko apirilaren 24an faxistek Elgeta hartu zuten.
Zibil eta milizianoak fusilatuz, neskatu zein emakumeak bortxatuz

APIRILAK 22 IGANDEA

12:00

INTXORTAKO ATEAN
OMENALDI-EKITALDIA

ELGETARA MARTXA

- ANDOINGO BANDA
ERREPUBLIKARRAREKIN
- LORE ESKAINTZA SALBADORREN

14:30

BAZKARIA

Izena emateko:
turismoa@elgeta.net edo 943 768 022

APIRILEAN ZEHAR

BISITA GIDATUAK

Izena emateko:
turismoa@elgeta.net edo 943 768 022

APIRILAK 8 IGANDEA

APIRILAK 15 IGANDEA

Haur eta gurasoentzako bisitaldi berezia

APIRILAK 29 IGANDEA

Oroimena, egia, justizia, erreparazioa
eta berriz ez gertatzeko bermeak



ELGETAKO UDALA



INTXORTA 1937
KULTUR ELKARTEA

Edurne Gonzalez | Emuneko teknikaria

"Enpresek sare sozialetan duten euskararen erabilera anekdotikoa da"

- ▶ Emunek enpresek sare sozialetan egiten duten hizkuntzaren erabilera aztertu du
- ▶ Sarean egin duten hausnarketa osatzeko, jardunaldia antolatu dute biharko Garaian

USOA AGIRRE | ARRASATE

Azkeneko hilabeteetan, sarean hausnarketa bideratu du Emun Lana Euskalduntzeko Kooperatibak enpresen sareko hizkuntzen inguruan. Hausnarketari segida emateko jardunaldia antolatu dute biharko, martitzena, Euskadi+Innovaren bidez Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean. Egindako hausnarketak jasotako ondorioen inguruan eta jardunaldiaz berba egin dugu Emuneko Edurne Gonzalezekin.

Ze behar ikusi zenuten enpresen sareko hizkuntzen inguruan hausnarketa abian jartzeko?

Emuneko lantalde bat, bezero zehatz batzuen kezkarri erantzunez, enpresek sare sozialetan zein hizkuntza erabili behar zituzten hasi ginen aztertzen. Uste dugu edozein enpresaren kezka izango dela epe motzean eta, horregatik, arazoa orokortu eta ikerketa proiektu bat jarri genuen martxan. Uste dugu, enpresa bat sare sozialetara sartzen denean hizkuntzaren gaian pentsatu gabe hasten direla eta, ondorioz, askotan gaztelaniaz ematen dituztela lehen pausoak. Horregatik enpresak honen inguruan hausnartzea nahi dugu.

Zelakoa da enpresen hizkuntza erabilera sarean?

Uste dugu orokorrean enpresek sare sozialetan duten euskararen erabilera anekdotikoa dela. Zerbitzu enpresek euskara gehiago erabiltzen dutela ere ikusi dugu, industria enpresek baino. Gainera, esango genuke, bailara honetako enpresetan euskara gehiago erabiltzen dela beste bailara batzuetan baino, guk behintzat, adibide gehiago aurkitu ditugu Debagoiengan. Bestetik, uste dugu enpresa askok ez dakitela nola jokatu, nahiz eta hasieran gaztelaniaz hasi, bada, kate euskara ere erabili behar dutela, baina, ez dakite nola egin.

Askotan enpresa euskaldunak izan arren, Internetera jotzerakoan gaztelaniaz jarduten da. Zergatik uste duzu gertatzen dela hori?

Enpresa askok Internetera jotzen dutenean ez dute hizkuntzaren gaian hausnarketarik egiten, pentsatu gabe jotzen dute bertara. Enpresak konturatu behar dira hizkuntzaren aldagaia lehiakideengandik bereizteko ezaugarri bat dela eta hori aprobetxatu beharko lukete ezberdintzeko estrategia gisa.



Edurne Gonzalez Emuneko teknikaria, Arrasaten. | UBANE MADERA

Egon dira zenbait ekarpen sareko hizkuntzen inguruan, zein izan dira ondorio nagusiak? Eta, horren harira, zein izan beharko litzateke enpresa baten sareko estrategia linguistikoa?

Argi geratu da irizpide orokor bat ez dagoela. Enpresek argi badute zein den euren iparra, horren arabera kudeatu beharko dituzte hizkuntzak sarean.

Beste alde batetik, argi eduki behar dute sarean esaten denak enpresaren identitatearekin zerikusia duela: azken baten offlinean, hau da, Internetetik kanpo, eurentzat euskara garrantzitsua bada, onlinean, Interneten, ere halaxe izan beharko da.

Lanketa egiterakoan kontuan izan beharreko batzuk hauek izango lirateke: Community Managerra edo sare sozialetako kudeatzailea euskalduna izatea; hartzailea ondo ezagutzea; emango den informazioaren helburua zein den argi edukitzea; zein sare sozialetan ari diren (Facebook, Twitter, Youtube...); eta ematen den edukia bera zer nolakoa den.

Jardunaldiak antolatu dituzue biharko Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean. Zer landuko duzue jardunaldiotan?

Sarean egin dugun hausnarketa osatzeko egin dugu jardunaldi hau, hain zuzen, enpresei sare sozialetarako irizpideak zehazten laguntzeko eta hausnarketa bultzatzeko. Jardunaldian hiru adituk euren ikuspuntua azalduko digute. Joseba Kamio izango da hizlari nagusia, eta Maite Goñik eta Txerra Rodriguezek Kamiori erantzungo diote.

Bestetik, Emunek enpresei hizkuntza irizpideak definitzen laguntzeko gomendio batzuk azalduko ditu eta bukatzeko, hiru enpresatako esperientziak ezaugarritzeko aukera egongo da: EITB, Mondragon Unibertsitatea eta Kutxa.

Emunek eskaintzen ditu enpresendako zerbitzu linguistikoa, Interneten kasuan lanik egiten duzue? Emunek aholkularitza integrala eskaintzen du. Beste arlo batzuen inguruan hausnarketa egin behar izaten da, Interneteko edukien inguruan ere hausnartzeko. Esan nahi dudana da, enpresako irudiaren gainean lanketarik egin ez duen enpresa batek, ez dugula uste Interneterako hausnarketarik egingo duenik.

"Enpresek gaztelaniaz ematen dituzte lehen urratsak sarean"

"Badakite euskara erabili behar dutela, baina ez dakite nola egin behar duten"

"Interneten esaten denak enpresaren identitatearekin zerikusia du"

"Offlinean euskarari garrantzia ematen badiote, Interneten ere bai"

"Garaia gunean enpresendako jardunaldia egingo dugu bihar"

"Gomendioak emango ditugu hizkuntza irizpideak definitzeko"

HERRIAK

Txolartek eskainiko du adimen urritasuna dutenendako aisialdia

- ▶ Gipuzkoako Atzegi elkartearen eskaintza da Txolarte aisialdi taldea
- ▶ Orain arte Pausokako boluntario taldeak antolatu izan du Oñatin aisialdi eskaintza hori

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Adimen urritasuna duten pertsonen aisialdia antolatzen Atzegi egingo du lan aurrerantzean Oñatin. Orain arte Oñatiko boluntario talde batek izan du aisialdi horiek antolatzeko ardura –Elena Perez eta Jasone Agirrek urte askoan, eta azkeneko urteetan baita Borja Zarketa, Ignazio Baltzategi, Ainhoa Erostarbe eta Itsasne Letamendik ere–. Lehenengo Pausoka izenarekin eta ondoren Saltoka izenarekin lan egin du taldeak, baina hainbat arrazoi direla-eta, borondatezko dedikazio hori eten egin behar izan dute. Hala, Atzegi hartuko du ardura hori aurrerantzean, Txolarte programarekin.

Zapatu arratsaldeak

Martxoaren 24an hasi zen lanean Oñatiko Txolarte taldea. Oñatin 10 bat laguneko taldea dago, eta zapatu arratsaldetan elkartzen dira: "Astebururo 10 lagunek parte hartzen dute txolartean, batzuetan denak etortzen dira eta beste batzuetan gutxiago, gustuko duten ekintzaren arabera izaten da", azaldu du Oiane Orkaizagirre Txolarte programa arduradunetako batek.

Denetarik ekintzak egiten dituzte Atzegi: txangoak egin, zinemara joan, antzerkera joan... "Orain arte aisialdiko ekintzak egin izan dituzte eta orain ere horrela jarraituko dugu. Parte-hartzaileen gustuko ekintzak egiten saiatuko gara, haien aisialdia baita", dio Orkaizagirrek. Aisialdi programa horien helburua parte-hartzaile guztiak ondo



Martxoaren 24an egin zuten lehenengo irteera Txolarteko kideek. | OIANE ORKAIZAGIRRE

ESANAK

"Astebururo 10 lagunek parte hartzen dute txolartean"

"Dauden boluntarioak gogo handiz hasi dira"

OIANE ORKAIZAGIRRE | TXOLARTE

pasatzea da, euren aisialdiaz disfrutatzea eta elkarren artean harremanak egitea. Oraingoz, egun bakarrean elkartuko dira, zapatu arratsaldeetan; izan ere, boluntarioak beharko lituzkete egun gehiagotan elkartu ahal izateko. "Hala ere, etorkizunari begira, beste egun baten ekintzaren bat egiteko ideia badaukagu, bai", gaineratu du Orkaizagirrek.

Lehen, Pausoka taldekoak Errege kabalagan, danborradan... irteten ziren, baina aurrean faltan igarri dituzte herrian. Berrero ere irtengo diren galdetuta, hauxe dio Orkaizagirrek: "Hori taldearen esku dago, eurek parte

hartu nahi badute, aukera izango dute, nola ez!".

Boluntarioen beharra

Hiru boluntarioekin hasi du ibilbidea Txolartek: Consuelo Torres, Alex Rodriguez eta Ignazio Baltzategi. Orkaizagirrek dio: "Dauden boluntarioak gogo handiz hasi dira eta euren animuari esker dago hain ondo taldea". Baina taldeak aurrera egin dezan boluntario gehiago izatea komeni dela diote. Horregatik, Atzegi deialdia zabaldu du. Ez da aparteko baldintzarik bete behar, 16 urtetik gorako edonor izan daiteke boluntario, adimen urritasuna dutenekin lan egiteko ger-

Txolarte, Atzegiren taldea

Txolarreak aisialdiko taldeak dira, asteburuetan egiten direnak 16 urte baino gehiago dituzten adimen urriko pertsonekin. Talde horien helburu nagusia aisialdiko ekintzak egitea da, betiere, beste batzuekin harreman positiboak eta esanguratsuak egiteko. Ekintza guztiak monitore boluntarioekin egiten dira. Gaur egun 12 Txolarte talde daude Gipuzkoan. Txangoak egin, zinemara eta festetara joan... Halakoak egiten dituzte.

tu egotea da eskatzen den bakarra. Interesa duenak Atzegirekin harremanetan jarri behar du, honako telefonora deituta: 943 42 39 42 zenbakia. Boluntarioak ez dira bakarrik egongo, Atzegiko arduradunak eurekin izango dira behar duten laguntza emateko.

Txolarrek Oñatiko Udalak Bidabarrieta kalean duen lokala erabiliko du aisialdia eskaintzeko. Atzegi Gipuzkoan adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundea da. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: aisialdi Txolartek aipatu bezala, familiei aholkularitza eta laguntza eta etxebizitza tutelatuak, besteak beste.

ALKATE JAUNA, HARIRA!

GOIENA TELEBISTA | HARIRA | RAMON AJURIA, ARAMAIOKO ALKATEAREKIN ELKARRIZKETA

APIRILAK 17, 21:25 | APIRILAK 18, 13:00 | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

PARTE HARTU ETA EGIN GALDERAK ALKATEARI

SAIOAREN AURRETIK: posta: harira@goiena.com | Goiena.net: albistearen barrenean, galdera edo iruzkina utzi.

ZUZENEAN: 943 25 05 03 | Twitter: [#traola](https://twitter.com/traola) | Goiena.net: ikusi streaming bidez, eta egin galderak eta iruzkinak.





Ibarre landetxean ere izan dira turistak; argazkian, ugazaba. | J.A.



Bisitariak zapatuan Arrikutzen. | AMAIA TXINTXURRETA



Oñatiko parrokia ikustera etorri ziren argazkiko turistak, zapatu arratsaldean. | JOSETXO ARANTZABAL

DEBAGOIENA

Azken egunera arte ibili dira turistak bailaran

Arrikutzen eta Gatzagan bikainak izan dira Aste Santua eta Pazkoa

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Turismo aldetik oparoak izan dira Aste Santua eta Pazko astea Debagoiengan. Eguraldi txarra egin arren, azken aste bukaerara arte izan dira bisitariak bailara-txoko erakargarrietan. Joan

diren egunetan, bi leku nabarmendu dira: Oñati eta Arrikutzeko kobak, batetik, eta Leintz Gatzaga, bestetik. Aipamen berezia merezi dute Arrikutzeko kobek: "oso ondo, iaz baino hobeto" ibili direla esan ziguten ardu-

radunek. Egubakoitz Santuan eta Pazko Domekan ibili zen jende gehien. Denetara, 800 bat bisitari izan ditu Arrikutzeko oraingo denboraldian, iaz baino %12 gehiago. Gainera, aurren, lehenengo aldiz, umeendako espele-

-abentura egin dute, eta, zerrenda beteta, jendea kanpoan ere gelditu zen.

Oñatin, zapatuan bertan hiru bisita gidatu egin zituzten; tartean, lagun talde handia batu zen San Miguel parrokia ikustera.

Gatzagan, 70 bisitari

Gatzagako gatz museoko ardura-dun Aitziber Gorosabel ere oso pozik dago Aste Santu eta Pazko denboraldiarekin: "Bisita guztietan izan da jendea; 70 bat lagun izan dira. Gehienak familiak izan dira". Gatzagako bisitari gehienak ere euskaldunak izan dira. Euskal Herriko hainbat lekukoak ziren, adibidez, zapatuko bisitakoak; 20 bat, eta denak lagun-koadrila berekoak, nahiz eta herri desberdinetakoak izan.

Ostatuak, berriz, ez dira bete. Antzuolako Ibarre landetxeko ugazaba Pilarrek esan digunez, "nahiko ondo joan da, baina, ez beste urteetan adina". Elgetako Eguzkitza ere erdi bete da. Landetxeetan, Aste Santuan soilik izan dituzte turistak; gainerakoan, enpresetako jendea.




AINGERU ETA XABIER
IRUÑEA ETA IRUN

"Lehen aldiz etorri gara hemengo gatz museora eta izugarri gustatu zaigu; gatz-ura ere probatu dugu. Bergarako lagun baten eguna ospatzera etorri gara, berak antolatu digu irteera kultural hau eta gustura gabilta, bai".



AGEDA GOIKOETXEA
BAKIO

"Asko gustatu zait eta eman behar diet honen berri ezagunei. Bizkaia-ko ikastetxe gehienak Gesaltzara egiten dituzte txangoak, eta komentatu behar diet hona etortzeko aukera. Gehiago gustatu zait".



MERTXE ETXEBESTE
HENDAIA

"Leintz Gatzaga herria izugarri gustatu zait. Museoa ere bai. Oso ondo zainduta eta antolatuta dago. Hurrengo batean beste lagun batzuekin bazkaltzera eta eguna pasatzera etortzeko moduko tokia da, bai".



JUAN ANTONIO CRUZ
ARETXABALETA

"Egun pasa etorri gara. Hemendik hain gertu bizi eta ikusi barik geneukan! Oso kuriozosa iruditu zait. Naturak sortzen dituen irudi eta formak ikaragarriak dira; beti harritu izan naute, batez ere, estalaktitek".



MAITE BLANCO
ARETXABALETA

"Oso polita iruditu zait. Ibilbidea oso ondo dago antolatuta eta azalpenak ere oso argi eman dizkigute. Gainera, naturak sortzen dituen forma bitxiez goatzeko toki ederra da; eta oso gomendagarria".



Asentzion, frontea nola erori zen azaltzen. | MIREN ARREGI

ELGETA

Gaztetxoek adi entzun dituzte Elgetan gerra garaiko kontuak

Frontea erori zela 75 urte beteko dira laster; atzo, familiendako bisita gidatuak egin zituzten

MIREN ARREGI | ELGETA

Apirilaren 24an Elgetako frontea erori zela 75 urte beteko dira. Urteurren hori tarteko, hilabete osoan zehar askotariko ekitaldiak antolatu dituzte Elgetan. Nahiz eta eguraldiak ez lagundu, atzo, esaterako, familia osoarendako bisita gidatuak egin zituzten Intxortara.

Azkoititik, Oñatitik, Elorriotik eta Elgetatik bertatik animatu ziren ume eta gurasoak Intxorta-

ko frontea ezagutzeko bisita gidatuetara. Normalean egiten den ibilbidea moztu eta umeendako egokitu zuten.

Espaloian hasi eta Asentziara

Espaloian hasi zuten bisita. Han, maketa baten ikusi ahal izan zuten gudaren garapena; bideo baten, garaiko testigantzak ere entzun zituzten. Handik Asentziara egin zuten, bertatik bertara ezagutzeko duela 75 urte gertatu zena.

IRATI ETA JONE ARBULU
ELGETA

"Familiako laurok etorri gara gaur bisita gidatura. Tokia ezagutzen genuen aurrez, baina gerra kontuez gutxi genekien. Etxeetan dinamita ipintzen zutela; horrek harritu gaitu gehien".

ALAITZ ETA MIKEL URRUTXI
ELORRIO

"Intxortako frontea ezagutzera etorri gara; pena da eguraldiak ez duela laguntzen. Gehien harritu gaituena izan da nola euskaldunek, horren gutxi izanda, lortu zuten 7 hilabetetan borrokari eustea".



Espaloia Kafe Antzokiko interpretazio zentroan. | JOSETXO ARANTZABAL



OÑATI

MARIA GONZALEZ

Sorbonatik eta Vaasatik, Oñatira

Parisko Sorbona Unibertsitateko Jean-Léo Léonard eta Finlandiako Vaasa Unibertsitateko Vittorio Dell'Aquila irakasle dialektologoak Oñatin izan ziren egubakoitzean. Kepa Elortzari eta Koldo Zumalderi elkarrizketa bana egin zieten, Oñatik euskara eta, bereziki, aditzaren erabilera aztertzeke egiten diharduten ikerketa baten baitan. Mendebaldeko aditzaren formak aztertzen dihardute bi irakasleek.



JOSETXO ARANTZABAL

LEINTZ GATZAGA

Batzarra eta luntxa 25 lagunendako

Urteko batzar orokorra egin zuten joan den egubakoitze arratsaldean Leintz Gatzagako Toki Eder erretiratuen elkarteko kideek. 25 bat gizon-emakume joan ziren batzarrera eta batzar osteko mokadutxora. Urteko diru-kontuak, udaberriko bidaia antolatzeko beharra, berritasun batzuk... denon artean komentatu zituzten. Besteak beste, aurtien Udalaren aldetik diru-laguntza laurden bat txikitu zaiela-eta, "Udalari kexa" helarazteko aprobetxatu zuten. Horrez gain, zuzendaritza batzordean sartzera animatu zuten oraingo arduradunek.

Udal bibliotekei bisita, atzo eta gaur

Garibai etxea, Monterron jauregia eta Kulturate, bilakaeraren hiru adibide

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna ospatuko da mundu osoan eta Arrasaten ere, urtero moduan, hainbat ekitaldi egongo dira. Egun berezia aitzaki, azken 50 urteotako udal biblioteketara bisita egin dugu.

Behar berrietara moldatzen

1966ko ekainaren 22an inauguratu zen Garibai etxeko udal biblioteka. Egun Gazte bulegoa dagoen tokian zegoen, bigarren pisuan. Liburuzaina Maria Urbana Juldain izan zen. Gero, Monterron jauregia pasa zen Garibai etxekoak ez zituelako baldintzak betetzen. Kultur etxe moduan ireki zuten, orduan Arrasaten ez zegoen-eta kultur etxerik.

Mari Carmen Fernandez izan zen Garibai etxetik Monterron jauregira biblioteka lekualdatzeaz arduratu zena eta 1987ko ekainera arte bera izan zen arduraduna. 1987ko uztailaren 1etik gaur egunera arte, berriz, Mertxe Perez de Ciriza da udal bibliote-

kako arduraduna: "Garibai etxeko bigarren pisutik Monterronera pasatzea salto handia izan zen, pisu bakarretik hiru pisutara pasa ginen. Baina gerora, Monterronek ez zituen hainbat baldintza betetzen eta zailtasun handiak zeuden obrak egiteko. Metro koadro aldetik txiki geratu zen eta irisgarritasun aldetik arazo larriak zituen", dio.

Kulturate 2007an ireki zuten: "Jauzi kuantitatiboa zein kualitatiboa izan zen. Kuantitatiboa, zerbitzuaren metro koadroak hirukoiztu ditugulako eta kualitatiboa aukera eman duelako Monterronen eskaintzen ziren zerbitzuen kalitatea hobetu eta zerbitzu berriak gehitzeko", azaldu du Perez de Cirizak.

Era berean, "badago non hobetu" eta erabiltzaileen kexa eta iradokizunei zabalik daude. Horren harira, biblioteka parte hartzailea izateko bidean jarri direla deritza arduradunak: "Uste dut herritarrek ulertu dutela udal biblioteka denon artean egin behar dugula".



1986-2007: Monterron jauregian egon da hainbat urtez. | UDAL ARTXIBOIA

LIBURUAREN EGUNEKO EKINTZAK

MARTITZENA, HILAK 17

18:30 Euskarazko literatura solasaldia: *Haizea Kontra*, Patxi Iturregi. Kulturateko Jokin Zaitegi gelan.

EGUAZTENA, HILAK 18

18:00 Maite Frankoren ipuin kontaketa: *Isilka misilka isiltasunaren zaindaria*. Adina: 5-8 urte. Santa Marinako auzo bibliotekan.

EGUENA, HILAK 19

18:30 Komiki solasaldia: *Maus*, Arte Spiegelman. Jokin Zaitegi gelan.

EGUBAKOITZA, HILAK 20

19:00 Mimi Barthelemy eta Alexis Diaz Pimienta ipuin kontalariak. Areto nagusian.

HILAREN 23TIK...

Maiatzaren 7ra arte, *El placer de leer* argazki erakusketa. Kulturateko klaustroan.

EGUBAKOITZA, HILAK 27

20:00 *Biodiskografiak* emanaldia, Iban Zaldúa, Xabier Montoia eta Ibon Rodriguezen eskutik. Kulturateko areto nagusian.

DOMEKA, HILAK 29

20:00 Musika eta poesia emanaldia: Alberto Urretxo (tronboia) eta Marion Desjaques Huguel (arpa). Kulturateko areto nagusian.



1966-1986: Gazte bulegoa dagoen lekuan zegoen biblioteka. | UDAL ARTXIBOIA



2007an ireki zuten Kulturate; jauzi handia izan zen. | J. BEREZIARTUA

Orientazioa landu eta mapak irakurtzeko ikastaroa, AEDren Elkartruk programaren barruan

J.B. | ARRASATE

AED elkartearen Elkartruk egitasmoaren barruan apirilaren 28an orientazioa landu eta mapak irakurtzeko aukera egongo da Oxel Arrieta mendizale arrasatearraren eskutik.

Lau orduko ikastaroa izango da eta, besteak beste, Monterron parkean egingo dituzten jolasen bidez mendian noraezean ez ibiltzeko oinarrizko ezagutza jasotzeko balioko du. Hilaren 25era arte eman daiteke izena 943 77

12 28 telefonora deituta edo aed@aedelkartea.com helbide elektronikora idatzita.

Arnasketa ikastaroa

Bestalde, datozen asteetan ere egin gura dute hasieran martxorako aurreikusitako arnasketari buruzko ikastaroa; Maitena Aranaren eskutik, estresari eta darماغun bizitzeko modu azkarrari aurre egiteko aholku eta teknika osasungarriak jasoko dituen.

Gaztetxe Eguna egingo da zapatuan, AGAKOK 21 urte bete dituela-eta

AGAKO 21. urteurrena ari da ospatzen hil hasieratik. Bada, egitarauko egun potoloen artean zapatuko Gaztetxe Eguna dago. Egun osorako egitaraua prestatu dute: 11:00etan gazte eztabaidak, 13:30ean trikilaria eta bertsoari buruzko giro-tutako poteoa, 15:00etan herri bazkaria plazan -txartelak salgai jarriko dira laster-, 18:00etan ikuskizun bat plazan eta ondoren, plazan ere, ekitaldi bat egingo dute. 20:00etan kalejira egingo dute eta amaitzeko, 22:30ean, ska festa egongo da Skasti eta Luz de putas taldeen eskutik.

Sanjuanetarako parte hartze prozesuaren gaineko hurrengo bilera bihar egingo da, Kulturaten (19:00)

San Juan jaietako egitaraua herritarren parte hartzearekin antolatzeke lehen bilera egin zuten hilaren 3an eta han egindako ekarpenekin pozik geratu zen Kepa Urteaga kultura zinegotzia: "Ideia asko aipatu ziren, baina denek azpimarratu zuten jendearen parte hartzea eskatzen duen ekitaldiak antolatu behar direla". Hurrengo bilera irekia bihar egingo da Kulturaten, 19:00etan hasita. Aurten Sanjuanek iazko aurrekontu bera izango dute.

Arrasate literatura lehiaketetan 138 idazlan jaso dituzte; sari banaketa maiatzaren 10ean izango da

138 lan jaso dituzte AEDn 25. Arrasate literatur lehiaketa dela-eta. Iazko parte hartzea ia bikoiztu egin dute eta igoera hori nagusien mailan eman dela nabarmendu dute antolatzailuek. Ohikoa denez, ipuinen atalerako bidali dira lan gehien, 95 hain justu. Gainontzeko atalei dagokionez, 15 poesia jaso dituzte eta 28 bertso-paper. Sari banaketa maiatzaren 10ean egingo da.

Bergarako besarkadaren gaineko hitzaldiak Irizarren oraingo astean

Juan Madariaga eta David Zapirainen eskutik, egunean eta egubakoitzean

EDU MENDIBIL | BERGARA

Irizar jauregiko sarreran zabaldu berri duten Bergarako besarkadaren gaineko erakusketa iraunkorraren harira, bi hitzaldi iragarri dituzte oraingo asterako. Batetik, Juan Madariaga historialariak *Lehenengo Karlistada garaiko Gizartea eta Kultura* izenburuko hitzaldia egingo du egunean, hilaren 19an, Irizarren, 19:30ean. Hitzaldiaren ondoren, XIX. mendeko abestiak eskainiko dira, karlistadekin lotutakoak hain zuzen. Hurrengo egunean, egubakoitzean, ordu eta toki berean David Zapirainen txanda izango da: Bergarako besarkada jorratuko du Zapirainek. Hitzaldiaren amaieran, 1840. urtean Besarkadaren hitzarmena gogoratzeke egin zen bezala, Brokeldantza dantzatuko dute Xamatze-kideek.

1839ko besarkada

1833an hasi zen Lehen Gerra Karlista eta Maroto jeneral karlistak eta Espartero jeneral liberalak 1839ko abuztuaren 31n sinatu zuten hitzarmena Barrenkaleko Irizar jauregian.

Irizarren zabalduak erakusketak bi atal ditu: atariko sarreran, eskuinaldean, Bergarako besarkadaren nondik norakoak azaltzen dira. Era berean, Maroto eta Espartero jeneralen tamaina errealeko figurak daude, Mikel Ibarzabal Era berean, sarreraren ezkerreko aldean, Irizar jauregiko lorategiaren eta jauregiaren alderdi historiko-artistiko esanguratsuenak batzen dituen egitura jarri dute ikusgai.

Besarkadak. Bergarako bake hitzarmena gogoan izenburuko liburuxka kaleratu dute, euskaraz eta gazteleraz, erakusketako lagun-garri gisa. Hain zuzen ere, testuak



Bi gionezko, Bergarako besarkadaren gaineko erakusketa ikusten. | JOSETXO ARANTZABAL

egubakoitzean Bergaran hizlari izango den David Zapirainek eta Juan Carlos Morak idatzitakoak dira.

Erakusketa iraunkorra

Aipatutako liburuxka Turismo Bulegoan izango da eskuragarri. Aste Santuan eta Pazko astean zabalik egon da Turismo Bulegoa udaletxean eta ekainean zabalduko dute berriz, udako denboraldiari begira. Bisita gidatueta, geralekuetako bat bilakatu da Bergarako besarkadaren gaineko erakusketa.

Irizarreko erakusketari dagokionez, esan bezala, erakusketa iraunkorra da eta egunero zabalduko dute: astean zehar 10:00etatik 20:00ak arte eta zapatu eta jai egunetan goizez zabalduko dute, 10:30etik eta 13:30era.



David Zapirain historialaria hizlari izango da egubakoitzean.



Olinpiaden 12. ekitaldia jokatu da apirilaren 28tik aurrera. | GOIENA

Gaztetxoendako Olinpiadak Jardun elkartearen eskutik

E.M. | BERGARA

Jardunek antolatuta, gaztetxoei zuzendutako Olinpiadak izango dira apirilaren 28tik maiatzaren 19ra bitarteko zapatu arratsaldetan. Aurtengo ikasturtean 4., 5. eta 6. mailan diharduten neska-mutilek har dezakete parte eta taldeak gutxienez sei lagun ez gehienez zortzi lagun ez osatuak izan beharko dira.

Besteak beste, herri jolasak, igerilekuko frogak, sormen jolasak, boloak, toka edota igela jokoan lehiatuko dira partaideak. Lehenbiziko saioan, apirilaren 28koan, herri jolasen lehiaketa jokatu da Munibe

plazan. Lehen saria eskuratzen duen taldeak egun bateko irteera (zehaztu gabea) jasoko du eta, era berean, bestelako sariak zozketatuko dituzte partaideen artean.

Izen-ematea, hilaren 23ra arte

Izen-ematea egiteko epea hurrengo astelehenera arte, apirilaren 23ra arte, dago zabalik. Partaide bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu (Txapliguko kideendako edo Jarduneko bazkideendako, doan). Jardunek Errotalden duen bulegora jo dezakezue. Argibideak 943 76 36 61 telefonon.

OHARRAK

BIZIKASIK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK

Bizikasik pare bat ikastaro iragarri ditu datozen asteotarako. Alde batetik *Jendaurrean nola hitz egin* landuko dute (apirilak 24, 26 eta maiatzak 3 eta 8) eta bestetik *Ipuin kontaketa tailerra* egiteko aukera izango da apirilaren 25etik maiatzaren 10era. Bietan ere plaza mugatuak dira. Izen-ematea kultura etxean, 943 77 91 58 telefonon.

HAURRENDAKO UR JARDUERAK

Sei hilabete eta 4 urte bitarteko haurrendako ur jarduerak antolatu dituzte Agorrosinen. Ikastaroa apirilaren 21ean hasiko da eta eta ordu arte plaza libre betetzeko aukera eskaintzen dute. Argibide gehiago Agorrosin Kirolgunean, 943 77 70 95 telefonon jaso ditzakezue.

ODOL ATERATZEA HILAREN 25EAN ANBULATORIOAN

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak jakitera eman duenez, hurrengo odol ateratzea apirilaren 25ean egingo dute ambulatorioan, ohiko ordutegian, 18:00etatik 20:30era.

SAN JOXEPEKOAK, LOGROÑORA

San Joxepe erretiratuen elkarteak Logroñora irteera iragarri du apirilaren 24rako. Bergaratik 08:30ean aterako dira eta bazkal aurretik Iregua bailaran zehar ibiliko dira. Argibideak 943 76 21 40 telefono zenbakian.

UDALEKU MUSIKALAK MUSIKA ESKOLAREKIN

Musika Eskolak Udaleku Musikal iragarri ditu ekainaren 25tik uztailearen 6ra. 1999tik 2007ra bitartean jaiotako neska-mutilei zuzendutakoak dira. Izen-ematea, apirilaren 26ra arte dago zabalik. Argibideak Musika Eskolan, 943 76 57 80 telefonon.

JULEN RIBASEN ERAKUSKETA NAHIKARIN

Julen Ribas arrasatearrak margo erakusketa jarri du ikusgai Nahikari tabernan. Formatu handi eta ertaineko 12 lan zintzilikatu ditu.

USOA MENDIKUTEREN LANAK BARTZELONAN

Usoa Mendikute bergararrak margo erakusketa jarri du ikusgai Bartzelonan, Caffè d'Arts delakoan. Bruc kaleko 118. zenbakian dago aipatutako erakustokia.

ERRAMU ZAPATUKO PRESOEN ALDEKO ZOZKETA

Erramu Zapatuan Bergarako presoan aldeko bilguneak azokako produktuez betetako saskiaren zozketan 1.285 zenbakia izan da sarituta. Txartelaren jabeak 652 77 78 93 telefonora dei dezake.



Bi autobus geltoki Aita Lizarralde kalean egokitzeko baimena eskatu du Udalak. | MIREIA BIKUÑA

Euskadi etorbideko geltokien aldaketa

Eskaera idatziz egin du Udalak, eta Aldundiarekin beharrezkoak diren tramitazioak egiten hasi da

MIRYAM GALILEA | OÑATI

Udalak Euskadi etorbideko autobus geltokiak lekuz aldatzeko proposamena egin zion azaroan Aldundiari, eta aldaketa horren eskaera idatziz egin da, beharrezkoak diren tramitazioak hasita.

Udalak dioenez, hasiera baten, ez da aparteko arazorik ikusten aldaketa hori aurrera ateratzeko, baina orain arte hitzeko hartu-emanak izan direnei ofizialtasuna eman behar zaie; tramitazio bidetik helarazita.

Geltoki aldaketa horren asmoa autobusa herrigunetik ateratzea da. Gaur egun, lineako autobusek

bi geltoki dituzte: posta bulego aurrealdean bata eta Euskadi etorbidean bestea. Batetik bestera joateko herri barruko kaleak zeharkatu behar dira, ibilbideko kaleetan hainbat estugune arriskutsu daude, eta horri, gaizki aparkatuta uzten diren autoak gehitu behar dizkiogu. Zirkulazio arazoak nabarmenak dira, eta, ondorioz, autobusak atzeratu egiten dira.

Aukerak

Udaleko Hirigintza Departamentuak aukera ezberdinak aztertu ditu eta egokiena autobusak herrigunea zeharkatu ordez GI-2630

saihesbidetik bideratzea dela ikusi du. Foru Aldundiko arduradunarekin harremanetan jarri, eta Aita Lizarralde kalearen inguruan bi autobus geltoki egokitzeko baimena eskatuko diote. Behin baimena jasota, geltoki berrien kokalekua eta ezaugarriak zehazteko proiektua egin beharko dute.

Olakua aldera doazen autobusentzako geltokia, berriz, Aita Lizarralde kalean dagoen transformadore aurrealdean egin daitekeela pentsatu dute Udalekoek. San Lorentzotik Zubillaga eta Eloregerantz doazentzat, berriz, Kalegoiena inguruan aurreikusten da. Dena den, egin beharreko proiektuan azaldu eta Diputazioarekin adostu beharko da hori guztiari.

Antzerkia izango dugu nagusi apirilak dakarren kultur egitarauan

'Gure bide galduak' helduentzat, 'Bazen behin... opera' eta 'Katilukada Txotxongiloak' umeentzat, besteak beste

M.G. | OÑATI

Kultura Sailak antolatuta, hainbat ekintza izango dira apirilean zehar –antzerkiak eta erakusketa–, bai Santa Ana aretoan eta baita herriko Kultur Etxean ere.

Santa Ana aretoan apirilaren 20ean, ostirala, hasiko dira ekintzak. Bertan, 22:30ean, helduentzako *Gure bide galduak* antzezlan egongo da, Dejabu Panpin Laborategiak aurkeztua. Sarrerak 10 euroko prezioa izango du eta Barra-Barran egongo dira salgai.

Euskal Herriko historia hurbila abiapuntu hartzen du lan horrek, Franco hil ondorengo lehen urteak, hain zuzen, eta baserri girotik hirira Irakasle ikasketak egitera doan neska baten gogoetak ardatz ditu. Bost aktore eta zuzeneko gitarra doinuekin euskaraz sortutako antzezlan hori utopia, amets eta desenkantuari buruzko kontakizuna da. Gure memoriatik berreskuratutako pie-

zekin sortutako gaur egungo ipuina, egileen esanetan.

Santa Ana aretoan egongo den bigarren ekitaldia, berriz, igandean izango da, apirilak 22; bertan, haurrentzako eta familiendako *Bazen behin... opera* antzezlan aurkeztuko dute, 17:00etan. Sarrerak 3,5 euroren truke salduko dituzte Barra-Barran.

Antzezlan horri esker, erritmo eta dibertimenduz beteriko operaren historia ezagutzeko aukera zabalduko dute bi aktore, bi abesle eta pianistak.

Kultur Etxea

Kultur Etxean erakusketa bat bisitatzeko aukera izango dugu apirilaren 23tik 27ra arte. Liburutegiko erakusketa izango da hori.

Bestalde, antzerkia ere egongo da zinema aretoan *Katilukada txotxongiloak* lanarekin, apirilaren 17an, asteartea, 18:00etan. Kutxarekin elkarlanean antolatu dute hori.



Gure bide galduak antzezlanaren irudia. | DEJABU

Iturri gorritik ateratako su-egurra salgai jarriko du Udalak, bigarren urtez

Erosteko eskaerak udal bulegoetan egin behar dira, eta epea gaur amaitzen da

M.G. | OÑATI

Bigarren urtea da Oñatiko Udalak su-egurra erosteko aukera zabaltzen duela, eta hori lortzeko eskaerak egiteko epea bihar amaituko da; hain zuzen, udal bulegoetan egin beharko da.

Aurten ere, 40-70 urte bitarteko pagoei adarrak moztuko dizkiete, eta hortik sortzen den egurra sutarako salduko dute. 20-60 zentimetro bitarteko diametroa duten bost metro inguruko enborretan emango da, eta, guztira, 13-15 tonako kamioiak salduko dituzte (25 bat kamioi),

eta bakoitza 550 eurotan erosteko aukera eskaintzen dute.

Su-egurraren garraio eta zamatze-lanak Udalaren kontura izango dira eta kamioia eskatzaileak aldeztu aurretik esandako tokian hustuko da. Kontuan hartu behar da egurra uzteko lekuak Oñatin egon behar duela, kamioia bertaraino iristea ahalbidetu beharko duela eta ezin izango dela egurra eremu publikoan utzi.

Eskaera

Eskaera egiteko Oñatin erroldatuta egon behar da eta erositako

su-egurra norberaren etxeko kontsumorako izango da; su-egurra deskargatuko den lekua eskaera orrian adierazi beharko da.

Baserri edo etxebizitza bakoitzeko eskatzaile bakarra onartuko da. Aldiz, jasotako eskaerak ateratzen diren kamioiak baino gehiago badira, esleipena zozketa bidez erabakiko da eta lehentasuna aurreko urteko zozketan sarrituak izan ez zirenek izango dute. Azkenik, egurra esleitu edo zozketa egin ondoren bi hilabeteetan entregatuko da.

Herriko udalekueetan lan egiteko begiraleentzat deialdia zabaldu da

M.G. | OÑATI

Udalekueetarako begiraleak behar dira, eta Udalak deialdia egin du; hain zuzen ere, izena emateko epea apirilaren 21ean amaituko da.

Kontratazioa uztailaren 2an hasi eta 30ean amaituko da; era berean, hautatuek maiatzaren 19an, 26an eta ekainaren 30ean egongo diren prestakuntza eta eguneratze saioetara joan beharko dute.

Deialdi horretan parte hartzeko, apirilaren 21a baino lehen, 09:00etatik 14:00etara Oñatiko Udaleko erregistroan ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da: eskaera orria bete-

ta (www.oinati.net webgunean eta Oñatiko Udaleko erregistroan eskuragarri egongo da); NAREN fotokopia; eskatzen den titulua- ren fotokopia; EGA edo balio- kidea, izanez gero; eta eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien fotokopiak.

Hautaketa

Titulazioa, ikasketak, prestakuntza-ikastaroak, euskara, lan-esperientzia eta Oñatin erroldatua izatea puntuatuko dituzte. Puntuazioaren arabera zerrenda Oñatiko Udaleko iragarki taulan eta webgunean argitaratuko dute.

ARETXABALETA-ESKORIATZA

Irakurketa bultzatzeko ekintzak egingo dituzte egunotan

Barikuan liburu azoka egingo dute Eskoriatzan; liburuak etzira arte eroan daitezke liburutegira

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Hilaren 23an egingo den liburuaren nazioarteko egunaren harira, askotariko ekintzak antolatu dituzte datozen egunotan Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Azken urteotako ohiturari jarraituz, Eskoriatzan, *Kataia Eten Barik* egitasmoaren barruan, liburuak trukatzeko azoka gertatu dute Kultura eta Euskara udal zerbitzuek eta herriko liburutegiak elkarlanean. Egubakoitzean, apirilak 20, egingo da plazan *Bat ekarri, bi eruen* izeneko azoka, 18:00etatik 19:30era bitartean.

Horretarako, etxean egoera olean gordeta ditugun liburu zaharrak herriko liburutegira

eroan ditzakegu etzi, eguaztena, arte. Liburu bakoitzaren truke azokan bi liburu eskuratzeko txartelak jasoko dituzte eskoriatzarrek.

Testulibururik ez

Antolatzaileek nabarmendu dute nahi duenak parte hartu deza keela ekimen horretan, eta testuliburuak kenduta, edozein liburu eraman daitekeela, hala nola, ipuinak, nobelak, olerkiak edo sukaldaritzari buruzko argitalpenak. Baldintza bakarra da egoera olean egotea.

Loramendiren truke azoka

Aretxabaletan ere truke azoka egiteko asmoa du Loramendi



Egubakoitzean trukatu ahal izango dira liburuak osteria Eskoriatzako plazan. | GOIENA

euskara elkarrekin. Apirilaren 23tik 27ra egingo dute trukatzeko azoka hori, eta bertan parte hartzeko, liburu edo disko bat eroan beharko da Loramendik udaletxe zaharretan duen egoitzara. Liburu edo disko bakoitzaren truke txartel bat emango da.

Loramenditik gogorarazi dute aurkeztutako liburuak euskarazkoak izan beharko direla. Txartel hori, liburu edo disko bategatik aldatu ahal izango da

egun horietan Durana kalean trukea egiteko jarriko duten mahaian.

Horrekin batera, irakurketa bultzatzeko asmoz, bestelako ekintzak ere egitekotan dabilta Aretxabaletan. Herriko ikastetxeak, Udaleko Kultura eta Euskara Sailak eta Loramendi dabilta elkarlanean. Bihar, martitzena, deituta duten batzarrean zehaztuko dituzte irakurketaren harira egingo diren ekintzak.

Dena dela, hainbat ideia badituzte buruan. Udal liburutegitik, esaterako, *bookcrossing* delako ekintza egiteko asmoa dute lehen aldiz. Herriko hainbat ikasleei dagoeneko liburu bat eman diete Aste Santuko oportunitate irakurtzeko; eta oraindik zehazteko dagoen egunean, liburu horiek herriko hainbat txokotan uztea da asmoa, ondoren aurkitzen dituenak hartu, irakurri eta berriz kalean laga ditzan.

ARETXABALETA

Kulturaren gainean hausnartzeko batzar parte-hartzailea egingo dute egunean

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udaleko Kultura Sailak kultur jarduna aztertu eta zehaztuko duen *Herriketan* parte-hartze saioa jarriko du martxan egunean, 18:00etatik 19:00etara, Arkupen. Udalak herrikoideak kulturaren parte-hartzaile "aktibo" izan daitezela gura du, eta urtean zehar egingo diren ekintza, jai

eta ospakizunen antolakuntzan aretxabaletarren parte-hartzea beharrezkoa ikusten du. Egunekoa da lehenengo batzarra.

Bestalde, kulturaren gaineko edozelako zalantzak izanez gero, Arkupe kultura etxeko zuzendaritzara jotzeko -943 08 10 01 edo kultura@aretxabaleta.net gonbita egin du Udalak.

XVI. mendeko izurriteaz eta atez atekoaz jardungo dute aste honetan Arkupen

M.B. | ARETXABALETA

Bi hitzaldi eta ikus-entzunezkoa daude egunotan Arkupen: Etzi, eguaztena, XVI. mendean Euskal Herrian izandako izurritearen berri emango emango du Jose Antonio Azpiazu historialari eta ikertzaile legazpiarrak, 19:00etan. Hurrengo egunean, hilak 19, *Zaborra guk sortu, guk kudea-*

tu berbaldia eskainiko du Zero Zabor taldeak, 19:00etan, Oñatiko Natur Eskolako biologo Imanol Bienen eskutik.

Talde berak antolatuta, egubakoitzean, apirilak 20, Olaztikoko (Nafarroa) erraustegiaren gaineko *Etorkizuna erraustuz* izeneko emanaldia izango da, 18:00etan.

Eguenera arte eman daiteke break dance ikastaroan izena

Loramendik antolatutako break dance ikastaroan izena eman daiteke eguna, hilak 19, baino lehen. Saioak apirilaren 23an hasiko dira, eta hiru astetan luzatuko dira; 19:00etatik 20:30era izango dira astelehen eta eguaztenean. Zortzi lagun behar dituzte ikastaroa egiteko.

ESKORIATZA

Bigarren eskuko azoka egingo dute Mundumiran



Azaroan egindako azoka. | GOIENA

M.B. | ESKORIATZA

Mundumirarekin batera egingo dute maiatzaren 20an bigarren eskuko azoka, 11:00etatik 14:00etara bitartean, Santa Mariñe plazan. Horretan parte hartu gura dutenek maiatzaren 11ra arte dute izena emateko aukera 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta edo aintzane@eskoriatza.net helbide elektronikora idatzita. Udalak mahai bat utziko dio parte-hartzaile bakoitzari eta egun horretan non jarri behar den ere esango dio.

Udaletik gogorarazi dute salmenta librea dela, eta bakoitzak gura duena eroan ahal izango duela; baldintza bakarra da erabilgaitako gauzak izatea. Liburuak, altzariak, arropa, osagarriak, etxetresna elektrikoak, sukaldako gauzak, jostailuak zein kirol materiala jarri daitezke salgai.

Zabalik dago udalekuetarako behin betiko izen-ematea

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko diputazioen artean gertatutako udaleku programan izena eman dutenen zozketan plaza lortu dutenek behin betiko izena eman behar dute gaurtik, astelehena, hilaren 23ra bitartean. Bi bide dituzte: herriko kultura etxean dagoen Gazteria Zerbitzura joanda edo <http://gipuzkoagazteria.net/udalekuak/> webgunean sartuta.

Diputaziotik ohartarazi dute behin betiko izena emateko epea bukatzen denean, zozketan plaza lortu duen norbaitek izenik emango ez balu, plaza horri uko egiten diola ulertuko duela.

Komunikabideek atez atekoan duten jokaera aztertuko dute gaur

Debagoieneko Zero Zabor taldeak ekitaldiak antolatu ditu gaurtik hilaren 21era bitartean bailaran. Eskoriatzan ekintza bakarria egingo dute; hain justu ere, gaur, astelehena, atez atekoaren aurrean komunikabideek izan duten jokera aztertuko dute Huhezin, 19:00etan.

Zero Zabor taldeen helburua hondakinen kudeaketa arduratsua sustatzea eta herri-tarren artean birziklatzeko ohitura zabaltzea da. Eskoriatzan dagoeneko taldea sortu da, eta bailarako beste hainbat herrietako taldeekin bailara mailakoa ere eratu dute.



Urriaren 4an Intxortako frontean egon ziren gudarien omenez egindako ekitaldia. | JOSETXO ARANTZABAL

ELGETA

1937ko apirila gogoan, zapatuan, ekitaldia Intxortako Atean eta bazkaria antzokian

Ekitaldia 12:00etan egingo dute; bazkariaren prezioa 20 euro da, eta interesatuek udaletxean eman behar dute izena eguna baino lehen

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Intxorta 75 urte izenburupean 1937ko apirilean Elgetan gertatutakoak gogoan izango dituzte herrian. Apirilaren 22rako, domeka, ekitaldi berezia antolatu dute, elkarlanean, Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 kultur elkarteak. Oroimena, egia, justizia eta erreparazioa eskatzen dituzte bi erakundeek.

Eguraldi onarekin Intxortako Atean egingo dute ekitaldia; bestela, Espaloia kafe antzokian. Batean zein bestean 12:00etan emango diote hasiera ekitaldiari, eta, besteak beste, duela 75 urte Elgetan bizi izandako izugarrikeriak izango dituzte gogoan.

Andoingo banda errepublikanoaren laguntzarekin Elgetara oinez jaisteko aukera izango dute gerturatutakoek. Bidean, Salbadoro oroitarran lore eskaintza

egingo dute.

Bazkaria Espaloian

Udalak eta Intxorta 1937 kultur elkarteak bazkaria ere antolatu dute. Kafe antzokian egingo dute, 14:30ean. Prezioa 20 euro da. Menua hauxe da: frijituak, bakailao tortilla, txuleta brasan, gatztua eta urteko ardoa, sagardo txotxa eta txakolin txotxa.

Bazkarian parte hartu nahi dutenek udaletxean eman behar dute izena hilaren 19a, eguna, baino lehen. kontaktuak dira 943 76 80 22 edo turismoa@elgeta.net.

Beldarrainen liburua

Egun horretan, apirilaren 19an, Martiartu batailoiko komandante Pablo Beldarrainen oroitzapenak jasotzen dituen *Historia crítica de la guerra en Euskadi*

(1936-1937) liburua aurkeztuko du Intxorta 1937 kultur elkarteak. Beldarrainen alarguna eta alaba bertan izango dira. Ekitaldia 13:00etan hasiko da, antzokian.

Aranzadi zientzia elkarteak ordezkariek ere han izango dira; izan ere, ekitaldi berean, 36ko gerran gudariak erabiltzen zituzten gerrakoetako belarriak —edo hebilla— aurkeztuko dituzte.

Bisita gidatua hilaren 29an

Apirilean, gainera, martxan jarraitzen dute domekeroko bisita gidatuek. Apirilko azken bisita hilaren 29an egingo dute. Ohikoa den moduan, 10:00etan abiatuko da Espaloiko interpretazio guneetik eta hiru bat orduko iraupena izango du. Izena emateko deitu 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakira.

LEINTZ GATZAGA

Ur depositua bukatuta dago, baina oraindik ez dute urrik ponpatu

Saneamendu hodietan arazo txikiren bat izan dute, eta hori konpontzen dabilta orain

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gatzagainen egin duten ur depositu berriaren lanak bukatuta daude. Eraikina gertu dago, baina arazo txiki batzuk agertu dira ur hodietan eta horiek konpontzen dabilta orain. Hala, lan horiek egindakoan edateko uraren hodi zirkuituaren frogak egingo dituztela jakinarazi dute.

Ura oraindik ponpatu barik

Orain hilabete inguru egin zituzten frogak ur deposituan eraikitze lanak behar bezala zeudela ziurtatzeko, eta ez da izan ezustekorik. Saneamendu hodietan, oster, arazo txiki batzuk agertu dira, eta horiek konpontzen dabilta. Herriko etxeak urez hornitzen dituen depositutik —GI-3310 erre-

pide ertzean— igoko dute ura depositu berrira ponpa bidez, baina oraindik ez dute eroan. Ur edangarriaren hodi zirkuituaren frogak ere aurrerago egitekotan dira. Horiek guztiak egindakoan Gipuzkoako Urak hartuko du horren ardura.

Hodiek sartzeko lanak

Behin lan guztiak bukatuta eta frogak eginda Gaztainuzketa aldera eta Goierri auzora banatzea ura da asmoa. Horretarako, baina, hodiak sartu behar dituzte, eta diru-laguntzek aginduko dute lan horietan. Diru-laguntza eskarrik eginda daudela jakinarazi dute Udal ordezkariek.

ARAMAIO

Aitor Zabala | Aramaioko Gazte Asanbladako kidea

"Urtebeterako 'limitadua' gurea edo Otxandiokoena den erabakitzeke jaia da"


Hilaren 21ean egun osorako jai berezia egingo dute Otxandion: 'Limitaduaren errekonkista'

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Duela bi edo hiru urte hasi zen Aitor Zabala (Aramaio, 1989) Gazte Asanbladan, jende berria sartzeko beharrak bultzatuta: "Asanbladan zeuden batzuk kanpora joan behar zirela-eta hartu genien erreleboa", dio. Zapaturako prestatu duten egun bereziaz aritu gara berbetan. **Limitaduaren errekonkista deitu duzue hilaren 21eko jaia. Zer da? Zer dela-eta antolatu duzue?**

Aspaldiko esaera batek dio Otxandio eta Aramaio arteko muga zein zen erabakita ez zegoenez, bilera bat egin zutela aramaioarren eta otxandiarren artean. Honakoa erabaki zuten: goizean goiz, oilarrak jotzean, aramaioar bat eta otxandiar bat bata bestearen herri-rantz irten eta elkartzen ziren lekuan zehaztea zein zen muga. Baina kontua da, istorio horren arabera, aramaioarra gauze irten zela eta eguzkiaren ordez kandelak eraman zituela oilarrak egunari ongi etorria egin zieziaion, oraindik gauze zenean. Beraz, aramaioarra ia Otxandion zegoen egun argiz egin eta otxandiarra irten zenerako. Egun han dago muga.

Istorioa hartu duzue oinarri jai herriko bat egiteko. Baina zein da prestatu duzuen egitaraua?



Aitor Zabala. | J. BEREZIARTUA

Hala da. Zapaturako aitzakia bat da jende berria ezagutu eta festa polit bat egiteko. Otxandioko eta Aramaioko Gazte Asanbladen artean antolatu dugu, elkarlanean.

Goizean Orixolen elkartuko gara eta han hainbat jolas egingo ditugu. Gero Otxandion jarraituko dugu jolasekin eta bertan bazkalduko dugu. Jolasen helburua da sinbolikoki urtebeterako zehaztea *limitadua* norendako den. Beraz, urtero egiteko asmoz antolatu dugu; datorren urtean Aramaion egingo da.

Azkenik, argi utzi gura dugu lehia sana bultzatu gura dugula. Asanbladakoez gain, edonork parte hartzeko ekimena da.

ANTZUOLA

Oihulari Clownek ipuin tailerra egingo du

Aurreko saioak izandako arrakasta ikusita, hilaren 22an ipuin tailerra egingo dute berriro

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Lizarraga auzoko Laskurain Haundi baserrian egingo dute ipuin tailerra. Hilaren 22an, domekan, 10:30ean hasita, iluntzeko bederatzia bitartean izango da. Talde irekia da eta bakoitzak nahi duen saioetara joateko aukera dauka.

Izena emateko, 943 76 97 90 telefonora dei daiteke —bulego ordutegian 09:00etatik 15:00etara edo arratsalde 15:30etik 17:30era— edo oihulariklown@oihulariklown.org helbidera mezua bidali.

Ipuinak nola kontatu

Bertan, ipuinak nola kontatu ikasteko aukera izango da; baita ipuinak nola asma daitezkeen ere. Maisu eta andereñoendako, guraso eta aitaita-amamendako, idazleendako eta, noski, ipuin

—kontalari hasiberri eta profesionalendako tailerra dela azaldu digute Oihulariko kideek.

Ibarreko Dantzari Eguna

Oinarin dantza taldeak etxean hartuko ditu Debagoieneko dantzak eta dantzariak hilaren 21ean, zapatuan. 10:30ean batuko dira ibarreko taldeekin eta 12:00etan kalean barrera ibiliko dira dantza erakustaldia eginda. 12:30ean, aldiz, lehen dantza saioa egingo dute dantza taldeek; tartean, herri bakoitzeko dantza propioak eginda.

Eguerdian bazkaria egingo dute eskolako patioan. Arratsaldean bigarren dantza saioari ekingo diote. Guztira, dantzari eta txistulari artean, 150 lagun batzea espero dute antolatzaileek.

APIRILEKO SARIAK

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

KAMISETA

Bidali KLUBA DANBAKA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

DANBAKA))))))



IPIUINAK UMEENTZAT

Bidali KLUBA IPIUINAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



KAMISETA + POLTSA

Bidali KLUBA SKUNKFUNK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



PUZZLEAK UMEENTZAT

Bidali KLUBA PUZZLEAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



KOLOORE KAMISETAK ETA IZERDI-JERTSEAK



www.koloore.es
ESKAERAK:
koloore@koloore.es

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez: Bidali KLUBA KOLOORE
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

Atera etekina

goienakluba 2012

Sarrera doan!



Euskal Herriko parke mitologikoa
Mungia, 94 674 00 61

- Sarrera bat erosiz gero, Goiena Klubeko bazkidea doan sartuko da txartela erakutsita.
- Sarrera aldeaz aurretik erreserbatu behar da 94 674 00 61 zenbakira deituta.
- Epea: irailaren 30era arte. (abuztuaren itxita).

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL



DONOSTIA SAN SEBASTIAN
AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99



AVIA MECA
gasolindegia

Arrasate, 943 79 13 39



ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03



BEGONDO
optika

Aretxabaleta, 943 79 98 21



EUREKA!
zientzia museoa

Donostia, 943 01 24 78



ESKO SPORT
kirol denda

Eskoriatza, 943 71 52 96



GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41



GAES
Centros Auditivos
Entzumen zentroak
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55



GUZTIZ EDER
edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.



IKER
SUKALDEAK
IKER
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48



JAIXAK
denda

Bergara, 943 76 31 45



LASTAI
haurtzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59



LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71



MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan
MULTIÓPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75



NAREN
fisioterapia zentroa

Aretxabaleta,
943 08 21 89



RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa

Arrasate, 943 71 24 72



TXURI URDIN
izotz jauregia
Donostia,
943 46 44 00



KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aukera askoko partiduan, Aretxabaleta garaile Elgoibarren kontra

Atzoko garaipenarekin Mondrari bultzadatxo bat eman dio Juanan Cruzek entrenatzen duen taldeak

EMAITZA

ARETXABALETA

2-1

ELGOIBAR

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Kika, Gartzzi, Igor, Arriaran, Kerman, Bodillo (Gilen, 54. min), Haritz Igartua, Sancho (Jokin Urcelai, 73. min), Oxel (Barbero, 82. min), Jonan (Fouad, 89. min), Pinu (Julen Eraña, 54. min).

Elgoibar: Juanan, Mikel (Osoro, 79. min), Josu, David, Arce (Illart, 73. min), Aitor, Juan, Andoni (Sergio, 81. min), Adrian (Sergio, 81. min), Cabo, Casado.

AMAIA TXINTXURRETA | ARETXABALETA Aretxabaletak partidua hiru puntuak eskuratu nahi zituen, sailkapen orokorrean bigarren postua lortzeko aukerarekin

jarraitzeko. Bestalde, Elgoibar sailkapenean azken postuetan doan taldea da eta guztia ematera irten zen Ibarako futbol zelaira atzo, domeka.

Partidu "zaila" eta "tentsio askokoa" izan zela esan zigun Aretxabaletako Juanan Cruz entrenatzaileak, baina azkenean, aretxabaletarrek irabazi zuten.

Aukera ugariko partidua

Partiduan golak sartzeko aukera ugari izan zituzten Aretxabaletako jokalariek. Lehenengo zatian 13. minutuan, esaterako, Sancho jokalaria aukera paregabea izan zuen. Baita Julen Arriaranek ere. 17. minutuan Elgoibarkoen portieratik hurbil ibili ziren berriro eta Igor jokalaria ia sartu zuen gola. Oxel Apraitzek ere izan zuen aukera eta baita Kermanek ere. Hala ere, lehenengo zatian markagailuak 0-0 berdinduta amaitu zuen.

Lehen minutuetan Elgoibarkoek baloia gehiago eduki arren, Aretxabaletakoek dominatu zuten partidua eta 45. minutuan txartel horia atera zioten Elgoibarko Mikel jokalariai.



Julen Eraña jokalaria izan zen partiduko protagonistetako bat; banakoa jarri zuen markagailuan. | JOSETXO ARANTZABAL

Bigarren zatia hasi eta bost minutura etorri zen lehen gola Elgoibarko Cabo jokalaria eskutik. Aretxabaletarrek orduan markagailuan atzetik jarri ziren baina ez ziren kikildu, izan ere, 56. minutuan Aretxabaletako Julen Erañak berdinketaren gola sartu zuen. Orduan, harmailak ere berotzen hasi ziren eta partiduko tentsioa areagotu egin zen lehia bizi-bizia zegoelako bi taldeen artean.

Garaipenaren gola, baina, handik gutxira etorri zen. 62. minutuan Oxel Apraitzek egin zuen, eta ondorioz, UDAkoak jarri ziren markagailuan aurretik. Etxekoek aukera gehiago ere

izan zituzten ondoren; 69. minutuan Igorrek aukera ona izan zuen berriro, besteak beste. Elgoibarkoek ere 87. minutuan bina berdintzeko aukera izan zuten, baina ez zuten lortu.

Bestalde, txartel hori gehiago ere izan ziren partiduan, Aretxabaletako Sanchorendako 69. minutuan eta Gilen jokalariairendako 90. minutuan.

Pozik garaipenarekin

Juanan Cruz entrenatzailea gurtura zegoen lortutakoarekin: "Pozik nago taldeak egin duen lanarekin; jende gutxiarekin entrenatu dugu, lesio asko ditugu, baina ikusi da ondo erantzun

dutela hamaikakoak eta zelaira ondoren irten diren jokalariek".

Gaineratu zigun momentu batzuetan defendatzea "kosta" egin zitzaiela "baina berdinketaren gola azkar sartu dugunez, Elgoibarkoen gola ez da hain gogorra izan" azaldu zigun. Eta hauxe gaineratu: "Gol gehiago sartzeko moduko partidua izan da guretzako baina hiru puntuak lortu ditugu eta oso pozik gaude. Gainera, Mondrari ere fabore bat egin diogu". Mondra taldea ere azken postuetan dago eta Elgoibarkoek atzoko partiduan punturik ez lortzeak, onura ekarri die arrasatearrei. "Guri oso ondo

OHOREZKO ERREGIONALA

Puntu garrantzitsuak lortu ditu Mondrak, 2-1 irabazita

A.T. | ARRASATE

Zapatuan Hondarribiren kontrako partidua jokatu zuen Mondrak. Arrasateko taldea animatuta irten zen zelaira eta jokoan zeuzkaten puntu garrantzitsuak bereganatzea lortu zuen.

Lehen zatian nahiko parekatuta ibili ziren bi taldeak, baina bigarrenean Hondarribiren aurre-

tik jartzea lortu zuten arrasatearrek.

Golak, bigarren zatian

Lehenengo zatian nahiko berdinduta ibili ziren Mondra eta Hondarribia; 0-0ko emaitzarekin iritsi ziren atsedenaldira, nahiz eta Mondrakoek golak sartzeko aukera bat baino gehiago izan.

EMAITZA

MONDRA

2-1

HONDARRIBIA

Bigarren zatian, berriz, Arrasateko Markel Crespok gola sartu zuen eta markagailuan aurretik jarri ziren Mondrakoak.

Hala ere, laster heldu zen berdinketa; epaileak falta bat adierazi zuen eta penaltia etorri zen Mondrakoek kontra, Honda-

ribiak hori aprobetxatu egin zuen eta gola sartu zuen, 1-1 berdindu zuten orduan. Falta horretan gainera, Mondrako Julen Zaitegi jokalaria kanporatu zuten eta Arrasatekoak 10 jokalarirekin gelditu ziren zelaietan. Hala ere, ondoren Mondrako Andoni Aizpuruak gol erabakigarria sartu zuen, eta azkenean, Mondrakoek irabazi zuten partidua.

Puntu garrantzitsuak

Puntu garrantzitsuak lortu dituzte asteburuan, beraz, arrasatearrek. Sailkapen orokorrean sal-

bazioaren bost puntura jarri dira eta taldekideak animatuta daudela adierazi ziguten.

Azaldu ziguten afizioaren animoak ez zaizkiela falta eta guztia emango dutela hurrengo partiduetan. Helburua datozen partiduko guztiak irabaztea izango da arrasatearrentzat, nahiz eta partidua zailak izan.

Hurrengo asteburuan, esaterako, sailkapen orokorrean lehenengo doan Anaitasuna taldearen aurkako partidua jokatu dute Azepeitian eta guztia emango dutela esan digute.



Mondra

SASKIBALOIA | MUK zailago mailari eustea | 20

GARTZI GOROSABEL
JOKALARIA

"Huts egiteak zuzendu eta partiduari buelta eman diogu"

Gartz Gorosabel gustura zegoen garaipenarekin.

Partidu zaila izan da?

Bai, bagenekien Elgoibarkoak gogor etorriko zirela, baina konfiantza geneukan gudan eta bagenekien ondo jokatzeko bagenuen irabaziko genuela.

Presioarekin irten zarete zelaira?

Partiduetan beti izaten dugun presioarekin irten gara, ez geneukan gehiegizko presiorik. Disfrutatzea zen asmoa eta ondo pasatzearekin batera irabaztea, eta lortu dugu.

Zer moduz moldatu zarete jokalariorik?

Huts egite batzuk izan ditugu lehen zatian eta atsedendiaren ostean horiek zuzentzen saiatu gara. Eurek lehenengo gola sartu arren, partiduari buelta ematen jakin dugu.

Zuek dominatu duzue partidua, gainera.

Bai, aukera nahiko onak izan ditugu. Eurek ez dituzte horrenbeste aukera izan baina beti dago golen bat sartzeko beldurra. Hala ere, guk ondo jokatzen jakin izan dugu.

Pozik garaipenarekin?

Oso pozik. Bigarren posturako aukera horrekin jarraitu nahi dugu eta esperantza behintzat ez dugu galduko.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñak puntu bat eskuratu zuen etxean; Bergara, berriz, esku hutsik bueltatu zen

Banako berdinketa Azkoagainen; Bergara Urola baino gutxiago izan zen

A.M. / M.A. | OÑATI

Aloñak ezin izan zituen hiru puntuak eskuratu atzo Azkoagainen, nahiz eta uneoro gailendu ziren oñatiarrak jokoari dago-kionean. Pasajes izan zuten aurkari, eta ondo hasi zuten partidua Andoni Azkargortaren mutilek, bai defentsan eta baita aurrean ere bikain jokatuz. Baloia sarean sartzea besterik ez zitzaien falta izan, baina, gutxien espero zutenean, atsedenaldea baino minutu bat lehenago, Pasajesek partiduko lehenengo gola egin zuen. Atsedenaldea gainean, Azkargortaren mutilek ez zuten buelta emateko astirik izan.

Bigarren ere, lehenengo zatian erakutsitako nagusitasuna erakutsi zuen talde oñatiarrak.

Ahaleginak esperotako emaitzak eman zituen eta, bigarren zatiko 15. minutuan, baloia aurkariaren atean sartzea lortu zuten. Unai Bikuña izan zen golegilea.

"Aurrera begira, oso garrantzitsua izan da gaurko partidua, ez emaitzagatik, baina bai, azkenaldian ez bezala, joko ona egitea lortu dugulako. Azken partiduetan joko faltan geunden eta gaur hori berreskuratu dugu", esan zigun Azkargortak partidua bukaeran.

Liga bukatzeko sei jardunaldiren faltan, eta mailari eusteko arazo barik, Aloña Mendiren helburua izango da ahalik eta partidua gehien irabaztea eta atzokoa bezalako joko egiten jarraitzea.

Bergarak 2-1 galdu zuen

Nahiz eta joko aldetik Urolak baino gehiago erakutsi, Bergarak ez zuen lortu puntu bakar bat ere ekartzerik. Lehen zatian ondo aritu ziren Neka Galanen mutilek, baina jaurtiketetan ez zuten asmatu. Asmatu zuena Zumarragako taldea izan zen, bi estrategia jokalditan partiduko bi golak egitea lortu baitzuen.

Lehenengo zatian etxeko taldeak bergararren atera bi jaurtiketa egin eta biak sartu zituen. Atsedendiaren ostean, mahoneroek estrategia aldatu eta erasora atera ziren. Estrategiak funtzionatu zuen, baina ez gura bezain beste, izan ere, gol bakarra sartzea lortu zuten; Urrutia izan zen golegilea.



Lehen zatiko azken minutuan sartu zion gola Pasajesek Aloñari. | JOSETXO ARANTZABAL

REALA

Bittor Alkiza eta Darko Kovacevic Agorrosingo torneoan izan dira

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Aste Santuan, apirilaren 7an, Realak urtero antolatzen duen Nazioarteko Futbol Txapelketako bigarren jardunaldiko partidua jokatu zituzten Bergarako Agorrosin futbol zelaian. Eta ikusleen artean zeuden Bittor Alkiza eta Darko Kovacevic, biak ere Realeko jokalaririk izandakoak.

Espanyol eta Olympiakos

Euripean jokatu zituzten Agorrosingo berdeguneko partidua, B multzokoei zegozkienak. Lehenengo neurketan, Gipuzkoako konbinatua eta Espanyol lehiatu ziren. Kataluniarrak nagusitu ziren: 0 eta 2. Bigarren partiduan, Celtak eta Olympiakos jokatu zuten elkarren kontra. "Olympiakos iritsi zen Zubietan

jokatutako finalera, eta berak irabazi zuen txapelketa, Valentziaren kontra", gogoratu du Pedro Ricok, Bergara Kirol Elkartearen presidentea. "Egurraldi txarragatik, Euskal Herriko Itzuliko azken etapa egun horretan izan zelako Oñatin, eta aurten jende asko joan delako kanpora oporretan, ez zen bertako jende asko egon txapelketa ikusten, baina Vigotik asko etorri ziren. Gainera, Alkiza eta Kovacevicen presentzia ederra izan zen", gaineratu du Pedro Ricok.



eta Hondarribiko jokalaririk, euripean, indarrak neurtzen. | J.A.



Aloñak Eibarren kontra galduta UDaren kontra jokatu zuen segidan, 3. eta 4. postuak sailkatzeko. | JOSETXO ARANTZABAL



Aloña eta Bergararen arteko partidua. | JOSETXO ARANTZABAL



Zapatuko partiduetan ere ikusi ziren golak. | JOSETXO ARANTZABAL



Orduerdiko partidua jokatu zituzten ligaxkan. | JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA

Sei taldek jokatu dute infantilen Debagoieneko txapelketa

Eibar Mondra baino gehiago izan zen finalean, baina leialtasunez jokatzea zen helburua eta, hori lortu dutelako, pozik daude antolatzaileak

OIHANA ELORTZA | ARETXABALETA
Sei taldek hartu dute parte asteburuan Aretxabaleko Ibarra futbol zelaietan jokatu den infantil mailako Debagoieneko futbol txapelketan: Leintz Kirol Elkar-teak, UDak, Bergarak, Aloña Mendik, Mondrak eta Eibarrek. Azken biak heldu ziren finalera eta Eibarrek irabazi zuen txapel-

keta, baina hori ez zen hain garrantzitsua. "Helburua zen jokalariek guztiek leialtasunez, giro onean, jokatzeko, eta horrelaxe izan da. Joko zikinik gabeko txapelketa izan da, eta oso pozik gaude", aitortu du txapelketa UDarekin batera antolatu duen Smash enpresako Jon Ander Azkoitiak. "Txapelketak jarrai-

pena izatearen alde dago, gainera, UDA", gaineratu du.

Zapatuko eta domekako zaparradek ez dute txapelketa zapuztu, ez harmailetako giroa ezta berdegunekoa ere. "Aupa, Josu!", "aurrera, Xabi!", "baloia gurea da!", oihuka ikusleak batetik, eta bostekoak eta besarkadak, bes-tetik, jokalariek guztien artean.



JULEN, JULEN ETA AITOR
BERGARA

"Guk hiru partidu jokatu ditugu guztira, zapatuan bi eta domekan bat. Ez gara lehen postuetarako sailkatu. Giro ona badago, bai, baina pike handia ere bai; lehen mailako ligan besteko haserrea, askotan. Azken finean, torneo bat da hau eta irabaztea garrantzitsua da. Gainera, batzuek ez dute garbi jokatzeko. UDako taldean, esaterako, zikin jokatzeko duen jokalariek bat dago".



XANTI, JULEN ETA IORITZ
ALOÑA MENDI

"Etxekoak eta lagunak etorri dira Ibarrara eta animu asko jaso ditugu. Giro ona dugu gure artean eta txisturik ez dugu jaso, bakarrik jokaldiren bat gaizki egin dugunean. Txapelketa jokatu dugunok, gainera, elkar ezagutzen dugu, gehienok, behintzat, eta elkar animatzen dugu. Eibarren aurka galdu egin dugu domeka goizean eta UDaren aurka gero segidan, hirugarren eta laugarren postuak sailkatzeko".



IKER LOPEZ ETA ANDER LOPEZ DE ARMENTIA
UDA

"Zapatuko bi partiduak irabazi egin genituen, eta domekan, bat galdu. Adi begiratzeko besteek nola jokatzeko duten, zer egiten duten gaizki eta zer ondo, guk gure jokoa hobetzeko. Eguraldi txarra egin du, euri asko, bai zapatuan bai domekan. Baloi azkar ibili da, baina ondo moldatu gara; hori ez da arazoa izan guretzeko. Giro ona dago gure artean. Eibarrek eta Mondrak jokatu dute finala, final polita".

SASKIBALOA

Hirugarren jarraitzen du MUK, baina zailagoa du mailari eustea

O.E. | ARRASATE
77 eta 72 galdu zuen MU saskibaloia taldeak zapatuan La Salleren kontra, eta zailagoa du orain mailari eustea, Lehen Nazionalen geratzea, alegia. "Oraindik hirugarren postuan jarraitzen dugu, baina, La Salleren kontra galduta, egia da estutu egin dela mailari eusteko aukera", aitortu du

MUKo entrenatzaileak, Josu Larreategik. "Hala ere, itxaropentsu gaude", jarraitu du.

Hiru etxean eta bi kanpoan

Datorren asteburuan, jaitsiera fasearen bigarren itzulian hasiko du MUK. "Bost partidu dira. Horetatik hiru etxean jokatu ditugu eta bi kanpoan. Helburua da

hiru partidu, behintzat, irabaztea eta partidu horiek izan daitezke San Cernin eta Biok Zerbitzuak taldeen aurka etxean jokatu ditugunak eta Durangokoa, Tabirakoren aurka", azaldu du Josu Larreategik. Bigarren itzuliko lehen partidua zapatuan jokatu dute, San Cerninen kontra, 18:00etan Iturripen.

Lehen Nazionalen mailaren jaitsierako lehen itzulian, bost partidutik lau irabazi egin ditu MUK eta emaitza "bikaina" izan dela esan du Larreategik.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Ariznoa eta Dragoiko gimnastak lehia dute zapatuan Bergaran

Gipuzkoako eskolarteko B mailako txapelketako bigarren fasea jokatu dute zapatu goizean Labegarietako kiroldegian. Han izango dira lehian Bergara eta Antzuolako Ariznoa elkarteko eta Arrasateko Dragoi taldeko gimnastak. Arratsaldean Gipuzkoa osoko benjamin mailako topaketa ospatuko dute.

MENDIA

Pol-Poleko beterranoak Teruelera doaz maiatzeko zubian

Bergarako Pol-Pol mendi taldeak Teruelerako bidaia antolatu du beterranoendako maiatzeko zubirako. Irteera apirilaren 28an izango da. Goizeko 05:00etan abiatuko dira frontoi paretik eta Teruelgo Sierra de Gudar aldean ibiliko dira maiatzaren 1a bitartean. Izena emateko azken eguna apirilaren 25a izango da.

DORLETAKO PILOTA TXAPELKETA

Bailarako ordezkariak bikain Dorletako Pilota Txapelketan

Atzo jokatu zen txapelketako laugarren jardunaldia, Gatzagako frontoian

MIREN ARREGI | LEINTZ GATZAGA

Dorletako Pilota Txapelketako partiduak jokatu zituzten atzo Gatzagan. Hamaika kategoria biltzen ditu txapelketak: benjaminurretik hasita beteranoetaraino. Infantil eta alebin mailatan final laurdenak jokatu zituzten atzo, ez ordea beste kategoria guztietan. Hain zuzen, gainontzeko kategorietako pilotariendako txapelketako laugarren partidua izan zen. Beste sei jardunaldi dituzte horiek oraindik jokatzeko eta uztailaren 25ean erabakiko

da zeintzuk pasatuko diren finalera. Finalak, Gatzagako jaietan jokatu dira, irailean.

Txapelketako antolatzaile Mauri Zubillaga pozik azaldu zen atzoko egunak emandakoarekin: "Jende asko batu da, adin askotako pilotariak eta baita ikusle asko ere. Giro ederra sortu da", zioen.

Pilotarien maila altua

Beteranoen lehen kategoriari dagokionean, Mallabiako Usuriaga anaien jokua nabarmendu

zen atzokoan, inolako zailtasun barik gainditu baitzuten Legutioko Kintana eta Blanco pilotariez osatutako bikotea. Kategoria horretan bertan, Herizek eta Arrasateko Luis Kortak erakutsi zuten oraindik ere onenak direla. Arrasatearekin jarraituz, Ander Murua alebinaren lana izan zen nabarmentzekoa; Ander Llodiok eta Ander Muruak osatutako bikoteak erraz gainditu zituen Amurriotik etorritako pilotariak. Bestalde, Bergarako Jokin Etxaniz pilotari profesional

ohiaren semearen lana ere nabarmentzekoa izan zen, 22-1 irabazi zion-eta aurkariari.

Ibai Bolinaga, finalera

Bestalde, Ibai Bolinaga arrasatearra Euskadiko txapelketako finalerako sailkatu da. Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Nafarroa eta Bizkaiaeren artean jokatzeko den txapelketan Nafarroako edo Bizkaiko ordezkaria izango du aurkari.

ESANAK

"Debagoieneko ordezkariak maila ona erakutsi dute; bereziki, Kortak, Etxanizek eta Muruak"

"Partidu guztiak jokatu dira Gatzagako pilotalekuan; giro ederra izan zen domekan"

MAURI ZUBILLAGA | ANTOLATZAILA

MENDIA

Bigarrenez, parapentea ere izango da Aloñako Igoeran, domekan

Hilaren 22an egingo dute VIII. Aloñako Igoera. Mendi eta parapente lasterketa izango da; izan ere, bigarren urtez, parapentean parte hartu ahal izango dute lasterkariak.

Aloñako mendikatean altuera ertaineko mendi ibilbidea da. Aloñako gurutzearaino joango dira. Guztira 2.200 metroko desnibela osatzen da 15,5 kilometrotan. Horrela, lasterketa hori Euskadiko gogorrenetako bat da, 8 kilometrotan 1.000 metro igotzen dira-eta.

AUTOMOBILA

Hilaren 28an, zapatua, jokatu da VII. Udanako Igoera

Izenematea zabalik dago oraindik, hilaren 23ra arte, VII. Udanako Igoeran parte hartzeko. Lasterketa hilaren 28an, zapatua, izango da, eta errepidea 12:30ean itxiko dute. Horrez gain, segurtasuna bermatzeko, debekatuta egongo da ibilbide osoan aparkatzea. Oñatiko Foruen plazan hasi eta bukatuko da lasterketa; denetara, 4,46 kilometro egin beharko dituzte GI-2630 errepidetik. Euskadiko eta Gipuzkoako mendi txapelketen barruan dago honako proba.



Dorletako Pilota Txapelketan, beteranoen lehenengo kategoriako partidu bat. | JOSETXO ARANTZABAL

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30



goiena

Talde laranjaen garaipenak zoramena eta festa giroa ekarri zituen herrira

Euskal Herriko itzuliak bailarako eta kanpoko jendea erakarri zuen Oñatira eta euriari aurre eginez, jai giroa nagusitu zen

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Euriak ez zuen zapuztu Euskal Herriko itzuliak Oñatira ekarri zuen festa giroa. Herritarrak kalera irten ziren itzuliaren azken aurreko etapa amaiera eta erlojupekoa ikustera; txirrindularitza gertutik jarraitzen dutenak eta horren zale ez direnak. Baina oñatiarrak bakarrik ez, bailarako pertsona ugari ere izan ziren Oñatin itzuliaren egunetan. Kanpotik etorritakoek ere ez zieten hutsik egin itzuliari; esaterako, Legazpi, Bilbo, Donostia edota Italiatik etorri zen jendea.

Guztiek ilusioz ikusi zuten gertu-gertutik itzuliaren "zatitxo" bat, izan ere, askok esan ziguten "konturatu orduko" pasatzen zirela txirrindulariak eta ez zela astirik eman euren faboritoak gertutik ondo ikusteko. Hala ere, "saltsan" pozik ibili zirela azaldu ziguten.

Zaleak sinadurak eskatzen

Erlojupekoa jokatu zen egunean txirrindularitza zale eta kuxkuxero ugari hurbildu ziren Ibarra ingurura. Izan ere, bertan jarri zituzten taldeen autobusak. Gaztetxo asko koaderno eta guzti irten ziren protagonisten sinadurak jasotzera. Batek baino gehiagok, gainera, argazkia ere atera ahal izan zuen bere faboritoarekin.



Purito Rodriguez helmugaratu zen Samuel Sanchezen aurretik Oñatin amaitu zen bosgarren etapan. | A.T.



Txirrindulariak Olakuatik igaro zirenean zaleek txalo eta animo oihuekin hartu zituzten. | A.T.



Gasparotto maldan gora. | A.T.



Zaleak Astarloza ziklistarekin. | A.T.



Eurpean ikusi zuten sari banaketa Santa Marina plazan elkartutakoek. | A.T.



David Lopez txirrindulariaren emaztea Udanan. | A.T.



Samuel Sanchez podiumaren gorenean, itzuliaren garaipenaren ostan. | A.T.



ANTTON ELORTZA
OCE-KO KIDEA

"Kazetariak informatzeko daude, ez kritika arinak egiteko"

Antton Elortza oñatiarra Euskal txirrindularitza antolakuntzako kide da.

Nola baloratzen duzu Euskal Herriko itzuliak Oñatin eman-dakoa?

Oso ondo, dena pentsatu bezala irten da, eta ez da aparteko arazorik egon. Tamalez, giro txarra egin zuen, baina horren aurka ezin da ezer egin.

Beraz, eguraldiak ikusle kopurua baldintzatu zuen.

Erlojupekoa baino bi edo hiru egun lehenago eguraldi ona egin behar zuela jakin ezker, askoz ere jende gehiago etorriko zen Oñatira. Ikuskizuna ere baldintzatu zuen, izan ere, arriskatu behar zuten txirrindulariek bakarrik eman zuten ikuskizuna.

Goizean txirrindulari asko aipatu zuten ez zutela jausi nahi.

Zirkuitu oso teknikoa prestatu genuen, eta eguraldi txarrarekin askoz ere zailagoa izan zen. Denboraldia hasi baino ez da egin, eta irabazteko aukera zutenek bakarrik arriskatu zuten.

Zirkuituaren inguruan kritikak sortu dira. Zer iritzi duzu?

Kritika egitea oso samurra da, baina erlojupekoan ez zen inor jausi. Hurrengo egunean, Paris-Roubaix klasikoan eroriko pila bat egon ziren eta inork ez zuen kritikatu. Edozelan ere, kritikak kazetari bakar batek egin ditu eta berak lan egiten duen komunikabidea erabili du Oñatiko ibilbidea eta antolakuntza kritikatzeko. Nire ustez, kazetari horrek profesionaltasun falta erakutsi du, kazetariak informatzeko daudelako, ez kritikatzeko. Kritikak egiteko adituak daude. Zirkuitua gustuko izan dezakezu edo ez, baina ezin dena egin da mikrofonotik behin eta berriz hori aipatu. Antolakuntza ez ezik, Oñatiko herria ere kritikatu zuen.

Eguraldi onarekin hainbeste kritika egongo zirela uste duzu?

Ez. Dударik gabe, eguraldiak erlojupekoa baldintzatu zuen, eguzkiarekin ikuskizuna askoz ere politagoa izango zen, baina hori ez dago gure esku. Hori bai, Samuel Sanchezek irabazi ostean, kritikak alde batera utzi zituen!

TXIRRINDULARITZA

Urtzi Muguruza | Sumofic-Igartua taldeko ziklista

"Aitona lasterketa guztietara etortzen da beti, ez du kalerik egiten"

Kadete mailako txirrindulariak korritutako sei probatan dagoeneko hiru garaipen lortu ditu

XABIER URTZELAI | ANTZUOLA

Elkarrizketa hau irakurri orduko baliteke Urtzi Muguruza (Antzuola, 1996) denboraldiko laugarren garaipena poltsikoratua izatea. Gauzak asko aurreratzeko da hori, baina kadete mailan korritu dituzten sei lasterketatik dagoeneko hiru irabazi ditu (Eibarren, Beasainen eta Elgoibarren) eta momentuko gorputzaldi on horri urte osoan eustea ezinezkoa bada ere –guztira 25 lasterketa dituzte– denboraldi hasiera onari jarraipena eman nahi dio. Bada gauza seguru bat, hurrengo lasterketan ere aitona izango duela ondoan, animatzen.

Zer sentitzen da lasterketa bat lehenengoz irabazten denean?

Poztasun handia, emozioa, lanean jarraitzeko motibazio galanta. **Lehenengo garaipenak izan dira?** Bai, beno, infantil mailan ere irabazi nuen lasterketaren bat, baina kategoria horretan ez dute uzten garaipena ospatzeko eskuak eskulekutik altxatzen [Barre]. Orain, behintzat, ondo ospatu daitezke garaipenak.

Kadete mailako azken urtea duzu, ez du uste iaz halakorik egingo zenuenik.

Ez, lasterketak amaitzeko itxaropenaz hasi nuen iaz urtea, baina gero lasterketa batzuetan aurrealdean ibili nintzen, eta bigarren ere helmugaratu nintzen, baina aurten lehenengoz irabazi ditut lasterketak.

Eta bat beharrean, oraingoz hiru. Zelako garaipenak izan dira?



Urtzi Muguruza, Antzuolako plazan. | XABIER URTZELAI

"Infantiletan ezin da garaipena ospatzeko eskuak eskulekutik kendu"

Esprintean irabazitako lasterketak izan dira. Eibarren bederatzita lagun sartu ginen ihesaldi batean eta azken metroetan zegoen kurba baten abantaila hartu nuen eta lehenengo helmugaratu nintzen. Beasaingo lasterketan, berriz, Liernian hiru lagunek aurrera

egin genuen, helmugara iristeko zazpi kilometro geratzen zirenean, eta proba hura ere esprintean erabaki genuen. Eta azken garaipenean, Elgoibarren, 60 ziklista inguruko taldea iritsi ginen azken kilometrorra, eta hor ere lehenengo.

Hirurako esprintean. Zer behar da azken metro horietan erabakigarria izateko?

Indarra izatea beharrezkoa izango da, baina uste dut ondo kokatuta egoteak ere garrantzia handia duela.

Emaizta hauek martxoan jasotzeko, gogorra izan da negua?

"Antzuolan egiten zen Challenga irabazita hasi nintzen bizikletan"

Xabier Uriberekin, Jon Unamunorekin eta Xabier Aranzetarekin entrenatzen dugu, eta ez dakit gogorra izan zen, baina ibili gara entrenatzen, bai.

Aurtengo denboraldiko kontuak alde batera utzita, zer dela-eta txirrindulari?

Gaztetxoago ginenean Antzuolan Challenge moduko bat egiten zen, hainbat lasterketez osatutakoa. Lagun baten aitak animatuta eman genuen izena, eta irabazi egin nuen. Gustura ibili nintzen, eta orduan hasi nintzen bizikletan.

Eta orduetik, Bergarako Ziklismo Eskolan, Lokatzan.

Bai, infantil mailatik nago Lokatzan, duela lau urte. Orain momentuan Antzuolako lau gazte gabiltza klubean. Kadete mailan ari gara Jon Fernandez, Aritz Kortabarria eta ni, eta eskola arteko mailan dabil Iñigo Aranburu.

Lokatzatik hainbat ziklista antzuolar on pasa dira, azkenak Gurutz Larrea eta Xabier Aranzeta. Zuek moduko gazteendako erreferente izango dira, ala?

Bai, euren garaian lortu zutenari begiratzen diogu, afizionatu mailara iritsi zirelako. Gu oraingoz gustura gabiltza bizikleta gainean, eta horrekin nahiko, ez dut gehiago eskatzen.

Arantzeta entrenatzaile izanda, gainera, zer komentatzen dizue? Ondoan ziklista nagusiagoak izan arren, irabazteko aukerak berdin-berdin izan ditzakegula.

Amaitzeko, etxean, nor duzu jarraitzaile fidelena?

Gurasoak etortzen dira lasterketara, baina aitona ez du inoiz kale egiten. Berak eramaten dit bizikleta konpontzera, mekaniko lanak egiten ditu... Askok eskertzen dut hori.



Hiru garaipen, eta hirurak esprintean

Urtzi Muguruza antzuolarrak indartsu hasi du denboraldia, Sumofic-Igartua taldeko ziklistak Eibarren, Beasainen eta Elgoibarren jaso ditu besoak –erretuetan helmugan, edo sari banaketetan– eta oraindik lasterketa mordoak ditu aurretik. Gazte mailan talde indartsua izan du azken urteotan Lokatzak, baina bistan da belaunaldi berriekin ere fin dabilzala lanean.

KULTURA

Rafa Rueda eta bere 'Enaren geometria', formatu txikian

- ▶ Kontzertu akustikoa eskaini zuen Inkernun Txus Aranbururekin
- ▶ Azken diskoa aurkeztu zuen eta abesti zaharrak ere eskaini zituen

MIREN ARREGI | ESKORIATZA

Enaren geometria diskoa aurkeztu zuenetik, bigarren bisitatu du Rafa Rueda musikariak Deba-goiena. Oraingoan Eskoriatzara etorri da, Inkernu tabernara. Egubakoitzean egin zuen kontzertua, eta formatu berri baten, gainera; Arrasateko gaztetxera hainbat musikariz lagunduta etorri bazen, Eskoriatzan, Txus Aranburu besterik ez zuen izan musika lagun. Kontzertu akustikoa egin zuten elkarrekin.

Distantzia, bidaiatzea, herri mina, eternala bihurtzearen edertasuna, enaren joan-etorriak –eta hortik *Enaren geometria*–; horiek eta beste batzuk izan zituen berbagai. Bide horretan, pop-rock elektrikoa lantzen duen musikari mungiarrek gitarraren eta teklatuaren laguntza izan zuen. Azken diskoan askotariko instrumentuak erabili baditu ere, formatu honetan eta Inkernu bezalako eszenatoki txiki baterako, ezin horiek guztiak eka-rrri.

'Maleta hutsa', 'Distantzia'...

"Erbesteratu ekonomikoa naiz. Kantabriara joan naiz bizi izatera eta beti maleta egiten ari naiz", esan zuen Ruedak hirugarren abestia hastear. Hirugarren abesti hori zen *Maleta hutsa*. "Zergatik sartzen dugu behar duguna baino arropa askoz gehiago bidaiatzera goazenean?" Horretaz jabetuta, orain bere maleta maleta hutsa ote? Horren aurretik abestu zuen distantziaz jarduten den beste abesti bat. Haren izena, *Distantzia*. "Zein polita den bidaiatzea eta batez ere zein polita den gure jatorria, etxea, abiapuntua berdeskubritzea". Abesti indartsua da *Distantzia*. Jatorriaren eta herri minaren gaineko abestia. Gitarra doinu eta ahots-melodia indartsuak nahasten ditu horretan. Bide beretik etorri zen hurrengo ere; *Inor bagina*. Rafa Ruedak konposatzeko modu bitxia du. Lehenengo, melodiak sortzen ditu, eta ondoren ipintzen die letra melodia horiei. Bada, *Inor bagina* abestiari lagun batek ipini zion letra. Bilbotik Gasteizera Bob Dylanen kontzertu batera zihoazela sortu zen abestiaren letra: "Lagunak abestia entzun zuen eta handik bi egunera eto-



Rafa Rueda eta Txus Aranburu egubakoitzean Eskoriatzako Inkernu tabernan. | MIREN ARREGI

rrri zen, letra jarrita". Bob Dylan eta Tom Waits ere agertzen dira. "Zein polita den eternala bihurtzea abesti baten protagonista izanda", esan zuen.

Musikari sentibera

Rafa Ruedaren kontzertuetan oihartzen gara gizon sentibera eta behatzailea dela. Azken disko honetako abesti bat, esaterako, enaren joan-etorriari so sortu zuen: *Enara galduak*. Hain justu, abesti hori da diskoari izenburua ematen diona. Hortik baitator *Enaren geometria*. Enarak joan eta etorri dabilta. "Enara berdina ote beti bueltan datorren hori?" Bada, ez. Enarek memoria ere galtzen omen dute eta *Enara galduak* abestia ere indartsu etorri zen. Inkernu tabernako entzuleek txaloz eskertu zuten.

Istorio eta hausnarketa bitxiak helarazten ditu diskoan Rafa Ruedak. Eta polita da bere kontzertuetan abestien aurretik hurrengo datorren hori nola aurkezten duen entzutea. *Astea* abestia, esaterako, diskoko azkena, bere txikitako oroitzapenetatik sortu den abestia da. Txikitako oroitzapenetatik eta behatzaile izate horretatik. "Mundu honetan gehien erlaxatzen nauten gauzetako bat da behiak belarra jaten ikustea". Txikitari behi artean jolasten ibiltzen zen une haiek gogoratetik sortu da *Astea*.

Bukaera aldera entzun genuen *Ez al dakizu?* abestia ere; bila aritzearen eta gurariak patuari lapurtzearen garrantziaz eta ekinarren bidez lortzen denaz jarduten dena.

Abesti guztiak, baina, ez ziren bere azken diskokoak izan. Hor daude esaterako *Aineza* eta *Kea*, edota *Auzo berriren batean*. Azken horren letra Gotzon Barandiaranek idatzi da. *Kea* 2003ko abesti bat da eta *Aineza* berriaz, 2006koa.

Hamaika abesti eskaini zituen Inkernun mungiarrek. Eszenatokian bi ziren, eta ikuslegoaren tokian, 20 lagun inguru. Familiarteko kontzertua izan zen, beraz. Ruedak berak profesional bat dela erakusteko baliatu zuen, eta guk profesionaltasun horretaz gozatu ahal izan genuen.

ESANAK

"Gurariak patuaren altzotik lapurtu behar dira"

"Distantziak abiapuntua berdeskubritzen laguntzen du"

RAFA RUEDA | MUSIKARIA

Ahots ikasleek hasiko dute Bergarako udaberriko musika zikloa egubakoitzean

Aurtengo berritasun nagusia txaranga tailerra eta talde horren emanaldia izango da, hilaren 26an

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bergarako eta Arrasateko musika eskolak izango dira apirilaren 21ean izango da, Burlatako Hilarion Eslava musika eskolako orkestrarekin.

Ikasleei eskaintzen dizkieten tailerrak ere garrantzitsuak dira aurtengo edizioan. Adin guztietako ikasleek parte hartuko dute. Gorputz espresioa eta koreografiak eta Finale softwarea izango dituzte ikasgai.

Beste bi emanaldi ere nabarmendu zituen Ugaldek: organo ikasleek Dietrich Buxtehude musikariaren inguruan egingo duten kontzertua, batetik, eta txistu eta trikiti ikasleena, bestetik. Biak hilaren 27an izango dira: organo ikasleena Santa Marina elizako sakristau etxean izango da, 18:00etan, eta txistu eta trikitiarena Zabalotegi aretoan, 18:30ean.

Egubakoitzean, kantu ikasleen emanaldiarekin hasiko da zikloa. 200 ikasle baino gehiagok hartuko dute parte dagoeneko klasiko bihurtu den kontzertu horretan, Mariaren Lagundiaren elizan, 19:00etan.

Burlatarekin elkartrukea

Ikasleei eskaintako ekintzak ere garrantzitsuak izango dira, beste behin. Elkartrukeak azpimarratu ditu Marije Ugaldek, musika eskolako zuzendariak. Aurten,

bi antolatu dituzte. Bat dagoeneko egin dute, eta bestea apirilaren 21ean izango da, Burlatako Hilarion Eslava musika eskolako orkestrarekin.

Ikasleei eskaintzen dizkieten tailerrak ere garrantzitsuak dira aurtengo edizioan. Adin guztietako ikasleek parte hartuko dute. Gorputz espresioa eta koreografiak eta Finale softwarea izango dituzte ikasgai.

Beste bi emanaldi ere nabarmendu zituen Ugaldek: organo ikasleek Dietrich Buxtehude musikariaren inguruan egingo duten kontzertua, batetik, eta txistu eta trikiti ikasleena, bestetik. Biak hilaren 27an izango dira: organo ikasleena Santa Marina elizako sakristau etxean izango da, 18:00etan, eta txistu eta trikitiarena Zabalotegi aretoan, 18:30ean.

Maiatzean, Beethoven

Bestalde, ohi bezala, hilabete nagusia apirila izan arren, musika eskolaren ekintza batzuk martxoan izan ziren, eta beste batzuk maiatzean izango dira. Hala, maiatzerako utziko dute *Beethoven ezagutz* izeneko soka eta



Bergarako biolin ikasle txikiak, kontzertua hasi aurretik, artxiboko irudi baten. | GOIENA

haize taldearen kontzertua (hilak 13). Horrez gain, Apirilean Musika Eskolako egitarautik kanpo, maiatzerako beste honako emanaldiak antolatu dituzte: Sant Celoni Musika Eskolako kideei bisita, elkartrukearen barruan, eta Eskoriatzako trikiti egunean parte hartzea; eta Burlatako musika eskolako bisita, hori ere elkartrukearen barruan. Ekainean, udaberriko jai-kontzertua eta diplomatuaren emanaldia eta diploma banaketa egingo dituzte.

Musika eskolan hasitakoak

Kultura zinegotziak, Leire Iruinek, musika eskola zoriondu eta haxe esan zuen: "Bergaran daukagu orkestra, banda... baina horiek denak hemen hasitakoak eta ikasitakoak dira".

Lau talde gonbidatu Arrasaten

Arrasate Musikalek ere zortzigarren urtez egingo du bere udaberriko ziklo berezia, Udaberriko Musikaldia izenarekin. Apirilaren 27tik maiatzaren 6ra bitartean, ia egunero izango da kontzerturen bat, bai Arrasateko taldeena bai gonbidatu berezi batena.

Hauek dira antolatu dituzten kontzertuak: Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoaren eta Goikobalu Abesbatzaren emanaldia (apirilak 27, San Frantzisko elizan, 20:00etan); bi euskaldunek, madrildar batek eta ukrainar batek osatzen duten Ekimende soka laukotea (apirilak 28, Kulturaten, 20:00etan); Alberto Urretxo tronboi-jolea arrasatearra eta Marion Desjacques-Huguei harpa-jolea (apirilak 29, Kulturaten, 20:00etan); Jasone Etxebeste, Mikel Emezabal, Carlos Casadó eta Marixi Sesmak osatzen duten Urval Ensemble klarinete laukotea (apirilak 30, Kulturaten, 20:00etan); Arrasate Musikaleko txistu banda (maiatzaren 5ean, Herriko plazan, 12:30etan); eta Vocalia abesbatza (maiatzaren 6an, San Juan Bataiatzailearen parrokian, 20:00etan).

Erakusketak bisitatzeko aprobetxatu dute Pazko astea hainbat debagoiendarrek

Hiru izan dira zabalik: 'Bergara 1936', Arrasateko egileek eta beste batzuek egindako margolanena, eta Eskoriatzako aire libreko lehiaketarena

L.K. | ARRASATE

Zenbait erakusketa izan dira zabalik Debagoienean, Aste Santuan eta Pazkoan. *Bergara 1936* argazki erakusketak, Aroztegi aretoan, jakin-min handia piztu

du. Hala, Pazko asteko egunak aprobetxatu dituzte askok Toribio Jauregik ateratako argazkiak ikusi eta, kasuan kasu, haietan agertzen diren herritarrak identifikatzen laguntzeko.

Erakusketak zabalik jarraituko du apirilaren 29ra arte: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.

Margolanak bi herritan

Bi margo erakusketa ere bisitatu ditu jendeak egunotan. Eskoriatzako Aire Libreko VI. Margo Lehiaketako lan guztiak, 20 bat, ikusgai daude Ibarraundin egubakoitzera arte, egunero, 09:00etatik 14:00etara. Hilaren 10ean ireki zuten erakusketa, eta helduek eta 16 urtetik beherakoek egindako lanak daude ikusgai.

Arrasateko Harresi aretoa ere zabalik izan da Pazko aste osoan, batik bat arrasatearrek egindako margolanekin, Jesus Iñiguez batuta.

Hamar film labur, 130 artean finalista Huhezinemari

L.K. | ESKORIATZA

Huhezi fakultateak jakinarazi du zeintzuk diren aurtengo Huhezinema lehiaketako lan finalistak. Hauexek dira: *Ekaitza* (Alberto Gastesi), *Ismalia* (Xabier Cereceda-Hoz), *Zeinek gehiago irauin* (Gregorio Muro), *Superzebraman* (Javier Urtasun), *Istmo* (Alberto Gastesi), *Dicen* (Alauda Ruiz de Azua), *Garaipena* (Esteban Ramos), *No se qué hacer contigo* (Miguel Campión), *She's lost control* (Haritz Zubillaga) eta *Por los camareros* (Javier Etxaniz eta Gregorio Muro). Epaimahaiak lan zaila izan du, izan ere, 130 film laburrek parte hartu du lehiaketan; inoiz baino gehiago, Huhezinen esanetan.

Aurten, jaialdi-lehiaketaren bosgarren edizioa egingo dute. Maiatzaren 8tik 10ra arte izango da, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Laster jakinaraziko dute egitarau zehaztua.



Egubakoitzeko bisitari batzuk Aroztegi aretoan. | JOSETXO ARANTZABAL



Arrasatearrek egindako margolanak izan dira Harresi aretoan. | JOKIN BEREZIARTUA

Nabigazioa azkartzeko SPDY protokoloak ordezkatu dezake HTTP

- ▶ Zaharkitua geratu da HTTP protokoloa, webguneen datu eskerga dela-eta
- ▶ SPDY Google-ena da eta Microsoft era badabil bere proposamenarekin

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Hipertestuaren transferentziarako protokoloa, ala HTTP, nabigatzaileek zerbitzariarekin datuak trukatzeko darabilten protokoloa da, bezero eta zerbitzariaren arteko komunikazioa ahalbidetzen duena, ezinbestekoa gaur egun Interneten nabigatzeko. Adituen arabera, baina, laster zaharkituta geratuko da sarearen garapen handiaren erantzule izan den protokolo hori. Gaur egun nabigatzaile eta zerbitzarien arteko datu transmisioaren kopuru eskergari aurre egin ezinda, erretiratu beharrean aurkituko da HTTP protokoloa.

Aplikazio, irudi, iragarki eta testuekin, gaur egun webguneez ez daukate garai bateko sinpletasun eta arintasuna eta orri bat kargatzeko jaitsi beharreko datu kopurua geroago eta handiagoa da. HTTP protokoloak ozta-ozta egin diezaiokete aurre datu uholde horri eta horregatik Interneteko garapen teknikoko arduratzen den batzordea, Engineering Task Force delakoa, martxo amaieran batzartu zen protokolo ezagunaren bigarren bertsio bat planteatzeko.



'HTTP' letrak, nabigatzailearen helbide barran. | TUSPROYECTOSWEB.COM

Hala, Interneteko handikiak dagoeneko hasi dira euren apustuak egiten eta Microsoftek HTTP 2.0 delako protokoloa sustatuko du konexioaren abiadura eta aplikazioak aintzat hartu eta gailu eramangarri zein ordenagailuen baterien iraupena luzatuko lukeena. Google-ek, noski, badu berea, SPDY izeneko eta speedy ("ziztu bizikoa" ingelesez) moduan ezagutzen dena. Google-ekoek diote HTTPak baino %50

azkarrago egiten duela lan SPDY protokoloak eta jada, posible denean, erabili ere egiten dutela erabiltzailea konturatu ere egin barik. Eta ez eurek bakarrik, Twitterren ere noizbehinka badarabilte protokolo berria eta Amazonekoak ere hasi dira lanean Kindle irakurgailu berriak ere protokolo hori erabil dezan. Chrome nabigatzailean dagoeneko badabil SPDY protokoloarekin eta baita Firefoxen, hamaikaga-

rren bertsioetik aurrera. HTTP 2.0a berriz, Internet Explorerren bai baina Chrome nabigatzailearekin ez dabil, logikoa den moduan.

Gakoa, multimedian

Protokoloaren nagusitasuna lortzeko lehia, beraz, bizia da honezker. Multimedia protokoloen nagusitza ere jokoan dago, Flash-a euskarri moduan desagertu egingo baita eta erantzun berriak beharko direlako bideo eta ikus-entzunezkoentzako. Microsoftek SPDY azkarragoa dela onartzen badu ere, euren protokoloaren alde diotena da Google-ena ez dagoela eramangarrietako aplikazioetarako optimizatuta.

Google aurretik

Chrome nabigatzailearekin erabilgarri dagoenez, badirudi Google-ek daukala aurrekaritza hartuta, bere zerbitzu guztietan, Maps-etik hasi eta Youtube barne, ala aplikazioetan erabilgarri izango dutelako. Google Chrome berez da nabigatzaile azkarra eta SPDY protokoloarekin abiadura hori areagotu besterik ez da egingo, nahiz eta oraindik esperimentazio fasean dabilzaten. Laborategiko datuen arabera %64 azkartzen du errendimendua baina momentuz, esan moduan, Chrome eta Firefox nabigatzaileek bakarrik erabil dezakete. Abantaila nagusia da HTTP barruko TCP izeneko protokoloa ere badarabilela SPDYk eta, hain zuzen, hori da zabalduena

Zirkulazioa kontuan hartzen du jada Google Mapsek

J.B. | ARRASATE

Denbora errealean, zirkulazio datuak kontuan hartuta, ibilbideen kalkulu zehatza egiten du dagoeneko Google Maps aplikazioak.

Puntu batetik besterako denboraren kalkulua orain arte zirkulazio aintzat hartu barik egin izan du Google Mapsek, baina aurrerantzean aukera hori gaituta daukanak zirkulazioaren egoera kontuan hartuko duen kalkulua ere jasoko du eta aplikazioak berak proposatuko dizkio denbora aurrezteko ala auto gutxiago aurkitzeko ibilbideak zeintzuk izan daitezkeen. Horrela, ibilbiderik azkarrena ez da beti kilometro gutxien dituen izango.

Apple ere mapekin lanean

Orain arte Googlen mapa sistema izan da erabiliena bai Interneten zein aplikazio ezberdinetarako. Applek ere horixe erabiltzen du, baina zurrumurruak diote sistema eragile berriarekin batera, iOS 6 izango dena, bere mapak aurkeztuko dituela, iOSrako bereziak.

Pantaila malgudun e-liburua maiatzean egongo da salgai

LG etxeak aterako du lehena eta liburu elektronikoa bat izango da

J.B. | ARRASATE

Paperaren sendoera daukan eta tolestu daiteken lehen liburu elektronikoa salgai ipiniko du maiatzean LG enpresak, 1024 x 768 pixeleko erresoluzioarekin eta sei hazbeteko neurriarekin. Formatu hori izan dezakete etorkizuneko egunkariak, papera bezain arina eta tolesgarria delako.

Pantaila tolesgarriak asmatzen dabilteza teknologia konpainia nagusiak, azken joera bezala,

gailu eramangarrietan aplikatu ahal izateko. Samsungek pasa den abenduan erakutsi zuen marko ala karkaxarik ez zeukan pantaila garden tolesgarri bat eta Nokiak ere badauka bere prototipoa. Merkatuan agertzen lehena baina LG enpresaren ePaper pantaila izango da. Pantaila horri telefono ala tableta baten erabilpena eman gura diote baina paper orri batek daukan sendoera duen gailu baten. Nokiaren modeloari dagokionez, urriari



LGren ePaper. | LG

aurkeztu zuten eta nobedade moduan dakarrena da pantaila tolestu ala mugituz kontrol aginduak ematen ditrela. Merkatuzko planik ez dute agertu.

'Sinde Legearen' hilabeteko epean 213 salaketa jaso dituzte

J.B. | ARRASATE

Martxoaren lehenetik lanean den batzorde bereziak 213 salaketa eta 79 eskaera telematikoa jaso ditu webgunek ixteko eskatzen.

Espainiako Kultura Ministerioak zabaldu dituen datuak dira, jarduerako lehen hilabeteak. Salaketak jaso egin badira ere, momentuz ez dute webgunerik itxi ala sarbiderik eten, nahiz eta batzorde horrek zuzenean eska diezaioketen hori epaileari, bestelako bitartekorik gabe. Hala ere, prozesuak batzorde beste gutxienez 20 egun iraun dezake beraz ulertzekoa da sala-

keta guztiak tramitean aurkitzen direla oraindik. Kontua da batzordeak berak erabakitzen duela, egile eskubideak urratzen direla aintzatetsita, prozesuarekin jarraitzea eta batzorde horrek eskatzen dio epaileari neurriak har ditzala webgunearen jabeak urraketa egiten duten eduki horiek modu boluntarioan kentzen ez baditu.

Bai webgunearen jabea identifikatzeko eta harako sarbidea eteteko aipatutako batzordeak zuzenean eska diezazkioke datuak Interneteko hornitzaileari eta epaileari datuok eman.

Irailean aurkeztuko omen dute Googlen telebista sistema Europarako

J.B. | ARRASATE

Itxura guztien arabera, Google TV irailan aurkeztuko dute. Sonyko buru bati egindako elkarrizketa baten eman da aditzera data, euren telebistek ekarriko dutela iragarri duenean. Irailean Sonyk Google TV dakarten bi telebista modelo berri aurkeztuko ditu Europan osoan salgai jartzeko.

Prezioa, 300 euro

Zehazki zein modelo diren argitu ez badute ere, orain arte Sony etxeak azoketan aurkeztu dituenak ikusita, litekeena da 200 eta 300 euro arteko modelo izatea eta Blu-ray unitatea ere izatea barruan. Intelen oinarritutako prozesatzailea izango lukete barruan telebista horiek.

Instagramen Androiderako bertsioa jada kalean

Aurreko astetik dago sistema eragile horretarako bertsioa deskargatzeko moduan, eta arrakastatsu ekin dio, gainera, aplikazioak, 24 orduan milioi bat deskargatik gora izan baititu. Horrekin batera, dagoeneko eguneraketa bat ere ateratu dute, Android sisteman izandako akats batzuk konpontzeko.

Estatu Batuetako mugikorren erdiek Android sistema darabilte

Googlek dagoeneko merkatu kuotaren %50 daukala ateratu du argitaratu azken ikerketa batek. Samsungekin batera badirudi orain arte Applena zen pastela jaten hasi direla bi konpainiak, eta Google nagusitzeko bidean dela. Applek, zehazki, merkatuaren kuotaren %30,2 dauka. Microsoft laugarrena da zerrenda nagusian.

FileServe eta WUpload-ek ere zerbitzua eten dute

Zinema konpainien presioarengatik zerbitzua emateari utzi diote sareko bi biltegi horiek, Megaupload entzute suaren antzera. Hain justu, Paramount Pictures-eko arduradun batek esan du filmeen loturak dauzkaten guneen aurka zuzeneko salaketak jartzen hastekoak direla berandu baino lehen.

TELE-BEGI



AMAIA PAVON

Nahi gabe irentsi behar

Etxera bueltan nindoala, bidean aurkitu nituen taberna bakoitzeko zarata berbera entzuten zen: "Zeren partidua izango da?" pentsatu nuen lehenik; gero, baina, kexatu nintzen: "Hau da marka! Futbola saihesteko ahalegina eginda ere, nahi gabe irentsi behar!"

Esperientzia bera izan dut azken astean *Titanic*-ekin. Apirilaren 10ean 100 urte bete ziren *Titanic* transatlantikoa hondoratu zela; eta ez, ez dut wikipediatik jakin. Zine aretoetan izan zen lehenengo sorpresa: James Cameronen pelikula estreinatu dute 3D formatuan: "3D-aren berritasunaz aprobetxatu nahi den beste bat", pentsatu nuen. Baina ez, apirilaren 9an telebista piztu, eta horra hor *Titanic*-bonbardeoa: Antena 3n Julian Fellowes-en *Titanic* bertsoia, berez lau kapituluko serie gisa eraikia, baina atal denak elkar eta pelikula amaigabe bezain aspergarria eman zuten. Egun berean, *Cuarto Milenio*-ko Iker Fernandezek *Titanic*-en alderdi ezkutuak erakutsi zituen.

Hurrengo egunetan James Cameronen itsasontziaren gaineko dokumentalak ere emititu dira *National Geographic* katean. Pena bat, nahita irensteko moduko produktua dela esan didate-eta.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 16



Intxortako frontea hizpide

20:16

Juan Ramon Garai Intxorta 1937 kultur elkarteko kidea izango dugu Intxortako frontea erori zela 75 urte bete diren honetan.

- 12:30 Euskal Herriko Itzulia
- 14:05 Onein
- 14:35 Ikusmira
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:10 Ur eta lur
- 15:33 GCC
- 16:08 Organo kontzertua
- 16:40 Berriak
- 17:00 Eguraldia
- 17:05 Walker
- 17:35 Onein
- 18:00 Ikusmira
- 18:20 Beranduegi.tv
- 18:40 Altxor Txokoa
- 19:13 Hamaika.bit
- 19:33 Beranduegi.tv
- 19:51 Berriak
- 20:11 Eguraldia
- 20:16 Magazinea
- 21:01 Berriak
- 21:26 Eguraldia
- 21:31 Harmailatik
- 22:16 Magazinea
- 23:01 Harmailatik
- 23:46 Berriak
- 00:05 Eguraldia

MARTITZENA, 17



Ekonomia eta krisia berbagai

20:15

Magazinea-ko ekonomia tartean krisi ekonomikoa izango dugu hizpide Baleren Bakalkoa ekonomia irakaslearekin.

- 12:25 Magazinea
- 13:10 Harmailatik
- 13:50 Beranduegi.tv
- 14:08 Hamaika.bit
- 14:46 Berriak
- 15:06 Eguraldia
- 15:11 Ikusmira
- 15:22 Harmailatik
- 16:07 Onein
- 16:42 Berriak
- 17:07 Eguraldia
- 17:12 Bizitegia
- 17:42 Harmailatik
- 18:27 Altxor Txokoa
- 19:00 GCC
- 19:33 Beranduegi.tv
- 19:50 Berriak
- 20:10 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 21:00 Berriak
- 21:20 Eguraldia
- 21:25 Harira
- 22:25 Hamaika.bit
- 22:55 Magazinea
- 23:40 Berriak

EGUAZTENA, 18



Anosmia gaixotasuna

20:12

Anosmia gaixotasunak usaimenik eza dakar. Osasun tartean horixe izango dugu berbagai Miren Arizti otorinolaringologoarekin.

- 12:15 Magazinea
- 13:00 Harira
- 14:00 Beranduegi.tv
- 14:18 Hamaika.bit
- 14:48 Berriak
- 15:08 Eguraldia
- 15:13 Gipuzkoa kultura
- 15:43 Onein
- 16:06 Berbetan
- 16:41 Berriak
- 17:01 Eguraldia
- 17:06 Iruñeko Hotsak
- 17:31 Harmailatik
- 18:16 Organo kontzertua
- 18:48 Ekogune
- 19:18 Walker
- 19:47 Berriak
- 20:07 Eguraldia
- 20:12 Magazinea
- 20:57 Berriak
- 21:22 Eguraldia
- 21:27 Beranduegi.tv
- 21:44 Magazinea
- 22:29 Ekogune
- 22:59 GCC
- 23:32 Berriak
- 23:57 Eguraldia
- 00:04 Planik bai?

EGUENA, 19



'Sortuko dira besteak'

22:19

Xabier Leteren ome-nezko kontzertuaren zatitxo batzuk ikusi ahal izango dituzue aste honetako *Gipuzkoa kultura* saioan.

- 12:30 Magazinea
- 13:15 Ekogune
- 13:45 Azoka 5.00
- 14:20 Ur eta lur
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:10 Bizitegia
- 15:40 Harira
- 16:35 Ikusmira
- 16:45 Berriak
- 17:05 Eguraldia
- 17:10 Iruñeko Hotsak
- 17:35 Beranduegi.tv
- 17:53 Ikusmira
- 18:15 Altxor Txokoa
- 18:47 Ur eta lur
- 19:08 Ekogune
- 19:38 Planik bai?
- 19:48 Berriak
- 20:08 Eguraldia
- 20:13 Planik bai?
- 20:23 Magazinea
- 21:03 Lehiaketa
- 21:13 Berriak
- 21:38 Planik bai?
- 21:48 Eguraldia
- 21:53 Ekogune
- 22:19 Gipuzkoa kultura
- 22:49 Magazinea
- 23:34 Berriak
- 23:59 Eguraldia
- 00:03 Berriak
- 00:27 Eguraldia
- 00:32 Planik bai?

EGUBAKOITZA, 20



Asteak emandakoa

21:53

Astehonek eman duen gutzia jaso ahal izango duzue *AsteON* saioan. Horrez gain, erreportaje zabal bat ere landuko dugu.

- 12:30 Magazinea
- 13:15 Gipuzkoa kultura
- 13:45 Iruñeko Hotsak
- 14:10 Onein
- 14:33 Planik bai?
- 14:43 Berriak
- 15:03 Eguraldia
- 15:08 Planik bai?
- 15:18 Bizitegia
- 15:48 Berbaz
- 16:48 Berriak
- 17:08 Eguraldia
- 17:13 Planik bai?
- 17:23 28.Klip
- 17:49 Harira
- 18:49 Berbetan
- 19:24 Beranduegi.tv
- 19:43 Berriak
- 20:03 Eguraldia
- 20:08 Planik bai?
- 20:18 Harira
- 21:18 Berriak
- 21:38 Eguraldia
- 21:43 Planik bai?
- 21:53 AsteON
- 22:23 Esatea libre
- 23:23 Planik bai?
- 23:33 AsteON

ARRASATE IRRATIA

Debagoiena Zero Zabor asteari buruz jardungo gara, 107.7an

Aste honetan Debagoiena Zero Zabor astea ospatuko da eta taldeko kide bat etorriko da Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioa horri buruz hitz egitera. Gaur, astelehena, goizeko 10:30ean izango da hori. Astean izango diren hitzaldi, dokumental emanaldi, kalejira eta kontzertuen berri emango dizuegu, beraz.

Kepa Urteaga kexen batzordeburuari elkarrizketa

Arrasateko batzordeburuen erron-darekin jarraituta, aste honetan Kepa Urteaga kexen batzordeburua elkarrizketatuko dugu 107.7an. Urteagak jasotzen dituzten proposamen nagusien berri emango digu besteak beste elkarrizketa horretan. Bihar, martitzena, izango da hori *Igo autobusera!* irratsaioan goizeko 10:30etatik aurrera.

Kepa Junkera eta Xabier Amurizaren emanaldirako sarrerak

Kepa Junkera musikari bilbortarrak eta Xabier Amuriza bertsolariak Bizkaiko kopa zaharrak kantatuko dituzte *Kooltur Ostegunak* egitasmoaren barruan gaztetxean. Bertara joateko sarrerak dauzkagu, beraz, joan nahi baduzue, hartu parte zoketan. Deitu 943 25 05 05 telefonora, idatzi *irratia@goiena.com* helbidera edo Twitter bidez *@arrasategoiena-ra*.

TELE-ALBISTEAK

Aramaioko alkate Ramon Ajuria 'Harira' saioan izango da

Herritarrek egindako galderi erantzungo die zuzenean, martitzenean, 21:25ean



Ramon Ajuria, Aramaioko alkatea. | JOKIN BEREZIARTUA

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE Bihar, martitzena, Aramaioko alkate Ramon Ajuria izango da Goiena telebistan.

Herriko kontuak izango dituzte hizpide alkateak eta Eneko Azkarate aurkezleak. Horrez gain, ikus-entzuleek saioan parte hartzeko aukera ere izango dute alkateari galderak eginda.

Egin galderak alkateari

Hainbat modutara egin ahal izango diote alkateari galdera edo kezka ikus-entzuleek. Zuzenean galderak bi modutara egin ahal izango dira: telefonoz deituta 943 25 05 05 zenbakira edo Twitter bidez, *#harira* traola edo *hashtag*-a erabilita. *Goiena.net*-en *streaming* bidez ere eskainiko da saioa, eta galderak edo iruzkinak egiteko aukera izango dute erabiltzaileek.

Galderak aurretik bidaltzeko aukera ere izango da: posta elektronikoz, *harira@goiena.com* helbidera, hain zuzen.

Saioa bihar, martitzena, izango da Goiena telebistan, zuzenean, 21:25ean.

Basoa etorkizuneko energia iturri izateko beharrari buruz, 'Ekogune'-n

Itsasondoko hiri hondakinak batzeko sistemari buruzko erreportaje bat ere eskainiko dizuegu

A.T. | ARRASATE Eguaztenetan eskaintzen dugun *Ekogune* saioa gai interesgarri jositako dator aste honetan ere.

Eguazteneko saioa

Erreportajearen, Itsasondoko hiri hondakinak batzeko sistema gertu-gertutik ezagutuko dugu Julen Iriondo aurkezlearen eskutik.

Horrez gain, elkarrizketa nagusi bat ere izango du saioak, beti bezala. Aste honetan, Jakoba Errekondo paisajista elkarriketatuko du Iriondok, eta basoa etorkizuneko energia

iturri izateko beharrari buruz egingo dute berba. Bestelako kontuak ere izango ditugu eguazteneko saioan. Adibidez, herritarrei egindako inkestak. Plan Berdea ere proposatuko diegu gure ikus-entzuleei; hau da, mendi irteera edo erakusketaren bat proposatuko dugu *Ekogune* saioan.

Hori eta gehiago ikusi ahal izango duzue, beraz, eguazteneko *Ekogune* saioan 22:29ean Goiena telebistan.

Gogora ezazue sare sozialen bitartez saioa jarraitzeko aukera ere badaukazuela; beraz, jarraitu Internetez ere.

ESKER ONA

Jose Antonio Elkoro Unzueta



Bergaran hil zen 2012ko apirilaren 10ean, 66 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Maite izan zaitugunok ez zaitugu inoiz ahaztuko zurekin bizitako une alaia beti gogoan izango ditugulako.

Bergaran, 2012ko apirilaren 16an.

ESKELA EGUBAKOITZEAN NAHIZ ASTELEHENEAN ARGITARATZEKO, DEITU BEZPERA EGUERDIRAKO: 943 25 05 05.



Eskelaren prezioa: 126 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

ZORION AGURRAK



BERGARA
Nerea Anduaga
Apirilaren 21ean, 26 urte. Zorionak, pitxin! Aurten ezin izan dot zelebratu zurekin baina espero dot ondo pasatu izana! Txokolatezko 26 muxu!



BERGARA
Beñat Familiar Romero
Apirilaren 20an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta patxo potolo bat danon partetik!



ARETXABALETA
Beñat Zubizarreta Uribarren
Apirilaren 17an, 3 urte. Zorionak, gure piratatxo! Hiru urte. Hau bai mutil handixe hau! Ondo-ondo pasatu zure egune, pitxirrintxo! Laida, aitatxo eta amatxok. Pa!



OÑATI
Alaitz Lazkanoiturburu Palacios
Apirilaren 14an, 12 urte. Zorionak, guapisimo! Munduko neska politenari eta zoragarrienari egun zoriotsua opa diogu eta gutxienez 12 muxu goxo-goxuak bidaltzen dizkiogu familiakoek eta bereziki O.S.I taldekoek. Mua!



ARRASATE
Ekaitz Zulueta Algorta
Apirilaren 14an, Errepublikaren egunean, 2 urte. Barre eta barre, danak alaitzen jarraitzen dauen geure mutiltxuarentzako moso handi bat eta zorionak!




ARRASATE
Maialen Velez de Mendizabal Otero
Apirilaren 13an, 4 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure egunean familia eta laguntxoekin! Patxo eta besarkada potolo bat danon partetik!



ELGETA
Josetxo Arantzabal
Apirilaren 3an, urtebetetzea. Zorionak! Lankideok ez gara zurekin ahaztu. Eguraldi on zein txarrarekin, segi argazki ederrak ateratzen! Hurrengo kafea gure kontu!



ARRASATE
Izadi Bragado Alvarez
Apirilaren 12an, urtebete. Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure lehen urtebetetzea! Muxu handi-handi bat etxekoek eta, bereziki, aitatxo eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
Malen Kortabarria Iturbe
Apirilaren 12an, 4 urte. Zorionak, Malen! Jada 4 urte! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Izaro Uribarren Arkauz
Apirilaren 10ean, 12 urte. Zorionak, Iza! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi-handi bat zure lagunaren partetik. Horrela jarraitu, guapa!



OÑATI
Oier Larrañaga Etxeberrarteun
Apirilaren 10ean, 4 urte. Zorionak, Oier! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu pila bat etxekuen partetik.



OÑATI
Maddi Oleaga eta Izar Berasaluze
Maddik apirilaren 8an eta Izarrek apirilaren 10ean, 4 urte. Zorionak, bikote, etxeko danen partetik eta txokolatezko muxu handi bana Aritzen partetik.



OÑATI
Maialen Anduaga Baladron
Apirilaren 9an, 9 urte. Zorionak, Maialen, zure urtebetetzean, familiakoek partetik. Ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat denon partetik.



ARETXABALETA
Iradi eta Ibai Melgar Merino
Apirilaren 9an, 3 urte eta apirilaren 13an, urtebete. Zorionak gure etxeko printzipe eta printzesari! Txokolateko tarta prestauko deua, eh! Aitatxo eta amatxoren partetik patxo handi bat, gaberritos!



BERGARA
Elene Leceta Alberdi
Apirilaren 8an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoek partetik!



BERGARA
Naia Berraondo Mateos
Apirilaren 8an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Neska handia eta oso polita zara. Asko maite zaitugu. Aitatxo eta amatxo.



OÑATI
Ekhiñe Diaz Urrestarazu
Apirilaren 8an, 28 urte. Zorionak, tia Ekhi! Ez zara gurekin egongo, baina espero du bueltan bazkai goxo-goxo baten gonbittia. Ondo pasatu eta ekarri oparia! Marrubizko muxuak etxekuen partetik eta txokolatezko potolo-potolo bat Lideren partetik.



BERGARA
Naia Perez Marzan
Apirilaren 7an, 9 urte. Zorionak, gure printzesa. Ondo pasatu zure urtebetetzea. Musu pila bat lker, ama eta aitaren partetik. Segi horrela, maitia.



ARETXABALETA
Vanessa Pavon Vaz
Apirilaren 6an, 31 urte. Zorionak, amatxo! Ondo pasatu zure egunian! Patxo handi bat etxekoek partetik!



ARRASATE
Oihana Ezkurra
Apirilaren 4an, urtebetetzea. "Happy birthday", guapa! Los Angeleseko hot-dog batzuekin ospatu ezazu. Muxu potolo-potolo bat Liher, Zeke eta Itziarren partetik.



BERGARA
Mireia Larrañagan
Apirilaren 21ean, urtebetetzea. Inbitatuko gaiztuz ba Bolatokiko zure zorion-party-ra, ezta? Zorionak eta gora Elgetako mobida! Lanekuak.



ARRASATE
Imanol Soriano
Apirilaren 20an, urtebetetzea. Enteratu ga kremazko pastel ederrak itten dituzula. Ea ba. Zorionak, yoghourin! Laneko zure admiradorak..



OÑATI
Leire Kortabarria
Apirilaren 5an, urtebetetzea. Zure zoriontasuna ere, arrisku prima bezala, gora eta gora joan dadila! Urte askotarako lankideen partetik!.




ARRASATE
Unax Gonzalez Garzia
Apirilaren 3an, 5 urte. Zorionak, pirata! Azkenian heldu da eguna. Bost urte potolo bete dituzu. Ondo-ondo pasatu Warnerren eta belarri tirakada erraldoi bat etxeko guztien partetik. Musutxo bat bereziki Alli, Julene, Irati eta Jurgi txikiaren partetik.



ARETXABALETA
Nora Ugalde
Apirilaren 1ean, 10 urte. Zorionak, Nora! Oso ondo pasatu zure egunian! Hamar patxo potolo Bergarako familiaren partetik.

JAIOTAKOAK



Erlantz Alberdi Elorza

Oñati. 3,400 kilo. Apirilaren 6a. Gurasoak: Juan Karlos eta Jasone. Argazkian, Aiert anaiarekin.



Goretti Zumalde Irazabal

Oñati. 3,570 kilo. Apirilaren 7a. Gurasoak: Amaia eta Xabi. Argazkian, Goretti sehaskan lo.



Aimar Garcia Jurado

Aretxabaleta. 3,940Kilo. Martxoaren 30a. Gurasoak: Sheila eta Roberto.. Argazkian, Aimar aitarekin



Oier Lopez Garcia

Oñati. 4,040Kilo. Apirilaren 2a. Gurasoak: M. Karmen eta Juan Ramon. Argazkian, Oier sehaskan.



Abba-Ali Mohamen

Arrasate. 2,800Kilo. Martxoaren 31. Gurasoak: Hasina eta Macainin. Argazkian, Urmea ahizparekin eta izebarekin.



Enara Martin Unamuno

Bergara. 3,120Kilo. Apirilaren 4a. Gurasoak: Mainer eta Gorka. Argazkian, Enara sehaskan.



Mirari Gonzalez Sanchez

Elgeta. 2,800Kilo. Apirilaren 3a. Gurasoak: Cristina eta Juan Carlos. Argazkian, Mirari sehaskan.



June Osa Kimenez

Oñati. 4,300Kilo. Apirilaren 2a. Gurasoak: Nerea eta Iker. Argazkian, June lehengusina Zuriñerekin.



Laia Ezkurra Iturbe

Arrasate. 4,300 kilo. Apirilaren 12an. Gurasoak: Saioa eta Mikel. Argazkian, Laia, gurasoekin.



Markel Algaba Arrese

Arrasate. 2,800 kilo. Apirilaren 10ean. Gurasoak: Izaskun eta Jokin. Argazkian, Markel, gurasoekin.

BABESLEA

Umeentzako oinetakoak, eta abar...

tipi tapa
Oinetakoak
Arropa
Jostailu hezigarriak

Otalora Lizentziaduna 25
ARRASATE
Tel.: 943 79 17 47
tipitapa@hotmail.es

Jarraitu gaitzazu
Facebooken:

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	* FRUITU LEHORRA Burdinazko euskarri	Gernika-... Zitalak	Zelatan dabilena Ezagutzen dut
Igelen antzekoak dira ... eta ez gauaz	Zoritxar		
	Leherkari ezaguna		
	Txio eginez		
	Doministikua		Idi, hitz elkartzeetan Gunearen erdian
Estutunik			
Izen arabiarrak			
	Piraten edari		Röntgen
	500		Erbioa
Bizkaieraz, andrea			Omen
Bizkaiko ibaia			Uranioa
	Alokairua		

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	R	U	K	A	V	A	K	O
I	E	V	A	R	O	N	A	
R		N	O	R	I	L	V	
V	I	N	I	N	I	S	E	
I		Z	V	N	U	G	E	
V	K	O	I	X	I	I		
L	V	A	M	A	T	N	I	
E								
Z		L	I					

BILA-BILA 7

AI, ENE!

Musika gogorra, postrea gozoa

Duzuen lagun metal-zale amorratuak bazkaltzera gonbidatuz gero, gozoki hauek ezin hobeak izan daitezke postre bezala.
www.facebookfails.com



AHOBERO

"Zure semeari esango diot lotsagabe bat zarela"

JAVIER CLEMENTE | FUTBOL ENTRENATAILEA

Sailkapeneko jaitsiera postuetan dagoen Gijongo Sportingin entrenatzailea da une honetan Barakaldokoa, eta ez zitzaizkion bate-re gustatu Onda Ceroko kazetari batek egindako kritikak. Berdin erantzungo al luke taldea Championserako postuetan balego?
www.as.com

EGURALDIA



Max. 11°

Min. 5°

Bustirik jarraituko dugu goiz partean, baina arratsaldean atertzera egingo du.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-04-16

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Oihan Vega Angiozarkoa ez da geldi egotekoa: kamera edo mikrofono aurrean aurki dezakegu, edo agertoki gainean Belceblusekin batera jotzen, edo herriko jaietan musika jartzen, edo... | TXOMIN MADINA

"Nire 'Top Gaztea'-k ez luke irratikoaren antzik izango"

1. Duzun curriculumarekin edozeinek esango luke 31 urte beteko dituzula aurten...

Topikoa dirudien arren, gakoa lana egitean eta sakrifizioan dago; kasu honetan baina, gogoekin egindako lana denez, era positiboan egindakoa, ez dit inporta.

2. Kameraren pilotu gorria piztuta dago. Zer sentitzen duzu?

Urduritasuna ez, baina bai ardura puntu bat. Uste dut ardura hori beti izan behar dela hor, uneoro adi mantentzen zaitu-eta.

3. Zuk 'Arratsaldero'-n legez bost orduko programa bat aurkezteko zein bitamina da gomendagarriena?

Txokolatea eta platanoa erabiltzen nituen, publizitatean hori jaten nuen. Gutxi esan dezakete egunero zuzeneko bost orduko programa bat aurkeztu dutenik, eta pribilegiatua sentitzen naiz horrekin.

4. Kerman asko ezagutu dituzu?

Bi aldetatik daude Kerman modukoak: batetik, euskara ikasteko ahalegina egin eta irmotasuna erakusten dutenak; horrelako bi ditut etxean, gurasoak euskaldun berriak dira-eta. Bestetik bere alde xelebrea dago eta horrelako asko daude.

5. Zure 'Top Gaztea' partikularrean, zein izango litzateke nagusi?

Bateria jotzaile naizenez, Dave Weckl jarriko nuke, munduko bateria jotzaile onenetakoa. Celtas Cortos ere gustukoa dut, baita Bach ere. Nire 'Top Gaztea'k ez luke izango irratikoaren antzik.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Kenduko nituzke 'rollo' txar denak"

"Akaso topiko bat dat, baina munduko *rollo* txar denak kenduko nituzke: nahi izanez gero oso erreza da lasai bizitzea, albokoa izorratu barik; mundu honetako arazoak albokoa izorratzetik datoz. Horrelakorik egin gabe ere izan gaitzake zoriotsu edo defenda dezakegu gurea".

6. 'Olentzero' musikala zeretik hasi zenuten. Eromena ala ausardia?

Biak, eta hirugarren osagai bat ere bai: lana. Horrela lortu genuen amets bat egi bihurtzea; errealitateak ametsa gaingitu zuen, ez genuen espero lortutako arrakasta.

7. 'Euskararen espektakulua'-n umoretik hizkuntzaren egoera lantzen duzu. Barre, negarez egitearren?

Gure buruaz ere barre egin behar dugu; gure ardurak edo kezak umorez tratatzeari positiboa deritot. Beti hobetu daitekeen arren ez dut uste euskararen egoera negargarria denik, ezta gutxiago ere!

8. Diskofesta baten, zerk ez dizu hutsik egingo?

Umora onak. Diskofesta ondo pasatzeko dago diseinatuta; jendea festa egitera doa eta ez dago halakorik umore barik. Jartzen dudana musika edozeinek lor dezake; nik balio erantsia ematen diot: umore ona, energia eta ondo pasatzeko grina.

9. Parranda gau bateko hamargarren argazki eskaeran, nola egin irribarre?

Batzuetan kosta arren, umorea mantentuz eta oso presente izanda lana badaukat argazkia ateratzen duen pertsona horri esker dela; kritika txarrak moduan, soldatan doa.

10. Agendan hutsune bat duzu. Zerekin bete?

Utzi hutsunea, zaila da nire agendan halakorik aurkitzea-eta! Lagunekin, bikotearekin, familiarekin edo baka-rrik egoteko aprobetxatuko nuke.

BIHARAMUNA

MARIA AGIRRE



Gernika
75 urte

Hilabete honetan beteko dira 75 urte Gernika bonbardatu zutela. Gernika, 75 urte. Ematen du oso aspaldiko kontuak direla, baina, tamaina horretako sarraski batentzat urte horiek ez dira hainbeste.

Duela 25 urte egon nintzen Gernikan, orduan 50. urteurreneko ekitaldietan. Kontzertuek erakarritu joan ginen bertara, eta egunpasa ederra egin genuen. Umetan, berriz, eskolako irteera klasikoetarikoa bat izaten zen Gernikako juntetxera bisita egitea. Arbolaren sinbologia ere azaltzen ziguten.

Gernikako Arbola kantuak, berriz, osaba baten oroitzapena dakarkit. Gerra Zibilean gudari ibilitakoa, preso ere egon zen Ramon Ormaetxea aramaiarra. Nagusi zela, eta ohean gaiso zegoela, noizean behin Gernikako Arbola kantua tokadiskoan jartzea eskatzen zuen. Nola jartzen zen gizona, hunkituta, malkotan. Umea nintzen, eta ez nuen askorik ulertzen, baina akordatzan naiz oso momentu intimoa eta hunkigarria izaten zela.

Gernika, baina zein ahaztuta egon den Durango, 37ko martxoaren 31n faxistek 300 hildakotik gora utzi zituzten arren. Gure herrietatik gertu, Anboto ondolik bueltaka ibili omen ziren abioak Durango genozidioa egin aurretik. Zein gertu, baina zein ahaztuta izan dugun Durango.



Zer behar duzun badakigulako,

defentsa onena eraso ona egitea da

GORPUTZ ZAINKETA ETA TRATAMENDUAK

- **Zelulitisaren kontrakoak:** bilgarriak, buztinak, ultrasoinuak, kabitazioa.
- **Sendotzeko:** bakunterapia, alginatoak, elektroporazioa.
- Hidratazioa, gorputzeko peelinga.
- Gorputza prestatzea beltzaran jartzeko.

TERAPIA MEDIKO ESTETIKOAK, MESOTERAPIA
Arruabarrena doktorea, elkargokide-zk.: 6073

AG
Amagara

Erdiko kalea 54 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

KABITAZIOA

6 saio + 1 opari